



Moda

Gehigarri berezia → 11-18

LESAKA → 20

Gazte Eguna antolatu dute
apirilaren 26rako

MALERREKA → 26

Haurren begirale zerrenda
sortu nahi dute

LANA → 30

Langabezia saria jasotzen
ez dutenen kopurua gora

LEITZA → 34

Arantxa Iparragirre lehen
emakume alkatea Leitza



Nafarroaren Eguna ospatuko dute apirilaren 27an Baigorriin

Ohiturari jarraituz, apirileko azken igandea besta egun handia izanen da Baigorriin, Basaizea Kultur Elkarteak egun osoko besta antolatu baitu. Egun osoan dantzariak, bertsolariak eta musikariak izanen dira, goizean merkatua ere izanen da, eguerdian bazkaria eta arratsaldean kirol ikuskizuna, dantza saioak eta kontzertuak. → 37



ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR

Bertzelako ekoizpen eta kontsumo ereduen bila

ERREPORTAJEA → 4-5

Bazkideek ahal bezain hurbilekoak diren kalitateko produktu ekologikoak eskuratzeko eta ekoizleek beraien produktuak eskaintzeko tokia izan dezaten, Azoka zabaldu du Bidazi elkarteak Alkaiagan. Gaur egun, 70 bazkide dira eta ortziral eta larunbatetan irekitzen dute.

Idoia eta Katrin | Nafarroako Abortatzeko Eskubidearen Aldeko Batzarreko kideak



«Abortu klandestinoak ugarituta, arrisku egoerak ere areagotu eginen dira emakume eta profesionalentzat»

Hautsak harrotu ditu abortu legearen erreforma proposamenak. Eskualdeko batzarreko kideek ama izan ala ez erabakitzeko emakumeen eskubidea aldarrikatu dute.

ELKARRIZKETA → 3

BAZTAN → 39

Azpilkuetako eskola protago- nista duen filma saritua izan da

Azpilkuetako eskolaren inguruan egin duten *Jo ta jarri* filmak Huhezine-ma lehiaketan dokumental onenaren eta ikuslearen saria eskuratu ditu.

ZOKKETAK → 52



ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

Txartela egiteko deitu
948 635 458 telefonora

Euskaltzaindia, Sarako XXXI. Idazleen Biltzarrean Apirilaren 21ean, astelehenean

Aurkezpena:

AMODIOAREN MARTIRRA

Egilea: Ernest Daudet
Paratzailea: Xabier Altzibar

ZUBERERAZKO ISTORIO, ALEGLA ETA IPUIN IRRI-EGINGARRI

Paratzailea: Jean-Baptiste "Battitu" Coyos

LE FONDEMENT MORAL DES DROITS CULTURELS DE L'HOMME

Egilea: Pierre Charritton

Laguntzailea:

Euskaltzaindia
Euskaltzaindikoa
Office public de
la langue basque



www.euskaltzaindia.net

ttipi-ttapan

UDAN ere
ESKAINITZA
BEREZIAK

FLYER A5
2.500
143€

FLYER A5
5.000
165€

Koloretan | Doseinua barne
Inprenta barne | Garraioa barne
BEZa barne | Epea: 10 lan egun



Koşkontako bidea, 07 - 1 | LESAKA | 948 635 458 | kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com | www.ttipi.net

Hautsak harrotu ditu Abortu legearen erreforma proposamenak. Karriketan, «gure gorputza, gure erabakia» erranz erantzun diete politikariei hainbat eta hainbat herri-

tarrek. Tartean Nafarroako Abortatzeko Eskubidearen aldeko batzarreko kideek. Eskualdeko herritarrak ere batzarreko kide dira eta haietako batzuekin solastu dugu,

hainbeste zauri sorrarazi dituen proposamenaz. Aldarrikapen guztien atzean, argia da oinarria «ama izan edo ez izan erabakitzeko emakumeok dugun eskubidea»

Idoia GILLENEA eta Katrin KANPO | Nafarroako Abortatzeko Eskubidearen aldeko batzarreko kideak

«Lege zorrotzagoak ezarri ordez, sexu heziketan inbertitu behar da»

E. IRAOLA | ELIZONDO

Zein da egiten duzuen aldarria?

Abortua libre eta doha in osasungintza publikoan egin ahal izatea aldarrikatzen dugu. Erabakitzeko eskubidean kokatzen dugu gure eskariaren mamia; ama izan edo ez izan erabakitzeko dugun eskubidean.

Sistema berriaren oinarria zein izanen da?

Lege aurreproiektu honen oinarria abortua delitu izatea da, umekia eskubideak dituen subjektua dela diote. Baldintza eta epe zehatz batzuei erantzutean bakkari burutuko litzateke. Kontutan izan behar da, baldintza horiek legegileek, medikuek... ezartzen dituztela, emakumearen borondatea kontutan izan gabe.

Zeintzuk dira atzerapauso latzenak?

Egun indarrean dagoen 2010eko legeak itzalak eta argiak dituen arren, nabarmetzen dugun alderdi positibo bat hamalagarren astera bitarteko haurdunaldiak eteteko epea da. Epe honetan emakumeak hartzen ditu erabakiak, inoren presiorik eta baimenik gabe. Abortuen %93ak epe honen baitan burutzen ari dira eta epea murriztu nahi dute. Atzerapauso latzenetakoa izanen da, baina orokorrean zailtasunak ugarituko zaizkie



Idoia Gillenea eta Katrin Kanpo elizondarrak.

UTZITAKO ARGAZKIA

abortatu nahi dutenei: adingabeok erabaki ezina, tramitazioen konplikazioa, emakumearen biktimizazioa... Lege berriak kontzientzi eragozpenari ere atek zabalduko dizkio; azken unean atzera egin ahaliko dute sendagileek.

Emakumea eta enbrioaren eskubideak parean jartzen dira.

PP-ren ustetan enbrioaren eskubideak aintzat hartu behar dira, eskubideak dituen "subjektua" baita. Bi eskubidearen arteko gatazka sortzen da eta enbrioia babestu beharreko defentsarik gabeko izakia da PP-ren ustetan. Guretzat tesi ideologikoetan

ONDORIO MAKURRENAK
«Estatu mailan 118.000 abortu inguru ilegalak izango dira urtero, orain arte 14.astea bitarte burutzen zirenak hain zuzen. Abortu klandestinoak ugarituta, arrisku egoerak ere areagotu egingen dira emakume eta profesionalentzat. Datuek erakusten dute lege zorrotzagoak dituzten herrialdeetan abortu tasa altuagoa dela sexu eta ugalketa eskubideak lantzen direnetan baino»

oinarritutako ideiak dira hauek, ez du ez buru ez hankarik emakume eta enbrioaren eskubideak parean jartzeak.

Abortu kopurua "gutxituko" dela diote erreformaren aldekoek...

Hori da Gallardonon argudioetako bat. Ikerketek beste zerbait diote: lege zorrotzago batek ez ditu haurdunaldi ez desiratuak murriztuko. Abortu maila jaisteko sexu hezkuntza politika globalak eta hezkidetzagileak behar dira. Neurri prebentiboek jaitsi dituzte praktika sexual ez ziurrak, ez lege murriztaileak. Munduan 70.000 emakume ingu-

ru hiltzen dira abortuak baldintza kaskarretan burutzeagatik, gehienak lege zorrotzak dauden herrialdeetakoak.

"Erabakia pentsatzeko" denbora luzatzeak zer eragingo du?

Gure ustetan emakumeok horrelako erabaki bat hartu aurretik nahikoa pentsatu dugu zer egin nahi dugun gure bizitzekin. Halako erreformekin badirudi emakumeok ez dugula erabakiak hartzeko gaitasunik. Denbora luzatze honen oinarrian gaizki dagoen zerbait egitearen kutsua dago eta beste erabaki bat hartzeko konbentzitzeko nahia. Beste edozein esku-hartze medikutan ez dute pentsatzeko eperik ematen erabakiak berretsi aurretik.

Zer egin liteke erreformaren aurka?

Emakumeok antolatuta borrokatu beharra dugu lege hau aurrera atera ez dadin. Egun oraindik, egiteko asko dago sexu eta ugalketa eskubideen alde. Emakumeok egoeraz kontzientzia hartu eta gure gorputzaren jabe izateko bidean lanean segi behar dugu. Herri, auzo, institutu, gaztetxe, elkarte... askotan hamaika dinamika burutzen ari dira abortatzeko eskubidearen alde. Irakurleei deialdiei adi egon eta antolatzen diren ekimenetan parte hartzeko deia egin nahi gokie.



ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR

Joan den apirilaren 4an inauguratu zuten Bidazik Alkaiagan ireki duen Azoka. Geroztik, ortziral eta larunbatetan irekitzen dute.

GIZARTEA → HURBILTASUNA ETA KALITATEA OINARRI

Osasuntsu elikatu eta ingurumenari ahalik eta kalte guttien eginen dion gizarte eredua posible da

Bertzelako kontsumo eta ekoizpen ereduak bultzatzeko helburuarekin lanean ari da Bidazi

Bazkideek ahal bezain hurbilekoak diren kalitateko produktu ekologikoak eskuratzeko eta ekoizleek beraien produktuak eskaini ahal

izateko Azoka zabaldu du Bidazi elkarteak Alkaiagan. Gaur egun Bidasoaldeko 70 bazkide dira baina nahi duenak atek zabalik ditu.

G. PIKABEA

Nondik heldu da kontsumitzen duguna? Nork egin du? Nola? Zergatik erosi dut? Zertarako? Zer gertatuko da botatzen dudanean? Nork bilduko du? Galdera aunitz, baina kontsumitzerakoan gutti batzuen burutik pasatzen direnak. Bidazi elkarteak, ordea, bai, plan-tzatzen ditu galdera ho-

riek eta «galdera horiei eman nahi diegun erantzunen arabera kontsumitu» nahi du. Halaxe azaldu digute elkartetik. Bertze gisako kontsumo eta ekoizpen ereduak bultzatzeko asmoz sortua da elkarte, «bai plano pertsonalean, bai kolektiboan, baita ingurumenari begira ere, iraunkortasunean oinarritua».

2013ko apirilean aurkeztu zuten Bidasoaldean Bidazi, baina berez, duela hamar urte abiatu zuten hogeita bat bazkidek. Kontatu digutenez, «orduan kontsumo elkarte bezala sortu zen, bazkideek produktu ekologiko iraunkorrak elkarrekin erosi eta gero beraien artean banatzen zituzten. 2013an elkarte gehiago

ireki zen». Geroztik Azoka izan da Bidaziren egitasmo nagusietako bat, edo eurek dioten bezala, «elkartearen muina».

AZOKA ZABALIK DAGO

«Gizarte eredua aldatzea beharrezkoa da. Hurbiltasuna eta konfiantza batetik, eta kalitatea eta osasuna bertetik, oinarrizkoak direla iruditzen zaizkigu, eta horregatik sortu nahi genuen produktu ekologikoak eta ahalik eta hurbilenekoak lortu eta eskaini ahal izateko toki bat». Hori izan zen Azoka martxan parartzeko abiapuntua. Helburu horrekin, proiektua aurkeztu eta bazkide berriak bilatu zituzten. Gero loka-la bilatu, muntatu, lantaldeak eta batzordeak antolatuz, eta produktuak eta ekoizleak bilatu zituzten. Eta guztia auzolanean. Azkenik joan den apirilaren 4an inauguratu zuten Alkaiagako industrialdean prestatu duten Azoka, Cederna-Garalur Elkartearen eraikinean.

Kontserbak, zerealak, fruitu lehorrak, esnea, barazkiak, fruta, arrautzak,

ogia, baratzeak landareak... Produktuetan aukera zabala eskaintzen du Bidaziren Azokak eta horietako batzuk Lesaka, Arantza, Etxalar eta Baztango ekoizleek dira. Prezioerik onenak bermatze aldera, berriz, «ia-ia salmenta zuzeneko prezioak izan direla» erran digute Bidazitik. «Prezioei kargutiki bat eginen zaie proiektua mantentzeko dirua lortzeko, baina irabazi asmorik gabeko elkartearen denez, igoera minimoa izanen da». Bi egun irekitzen dute Azoka, ortziraletan 10:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:30era.

Azoka da Bidazik esku artean duen egitasmo nagusia, baina ez bakar-ra. Informazioari eta formazioari ere garrantzia ematen diotelako, bertzelako ekimenak ere egiten dituzte: hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak... «Gizarte eredu berri baten inguruan martxan dauden hainbat proiektuarekin harremanetan gaude, eta hauekin elkarlanak, ezagutzera emateak...

AUKERA ZABALA

Kontserbak, zerealak, fruitu lehorrak, esnea, barazkiak, fruta, ogia, arrautzak... Aukera zabala eskaintzen du Bidaziren Azokak.

egitea pentsatua dugu. Jendeak interesa duen edo proposatzen dituen ideietara irekiak gaude».

70 BAZKIDE

Bazkideak dira Bidaziren oinarri, eta gauregun Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka, Zugarramurdi, Sara, Irun, Hondarribia eta Hendaiako 70 bazkidek osatzen dute elkarteak. Modu boluntarioan osatutako sei baztorderen bitartez funtzionatzen dute: zuzendaritza, kontabilitatea, komunikazioa, azoka, ekoizleak eta moldaketak.

Auzolana ere «ezinbertzekoa» da Bidazin. «Azoka irekitzeko ia lan guztiak bazkideen artean egin dira. Urtarrilean hasi eta martxo bukaera arte hainbat auzolan deialdi egin ziren, eta guztietan izugarri ongi erantzun zuten bazkideek. Denetara 30 bat lagun lanean aritu dira».

Irabazi asmorik gabeko elkarteak da Bidazi. Eta bazkideen kuotak dira alderdi ekonomikoaren funtsa. Bazkide egiteko 50 euroko diru sarrera egin behar da eta gero hilabetero hiru euroko kuota ordaindu. Baina bazkide izateko bertze bi konpromiso ere eskatzen dituzte: «bazkide berriendako antolatzen den bilerara joatea eta bazkide bakoitzak elkarteari urtean hiru orduko lana eskaintzea».

Kontsumo eta ekoizpen eredu berriak posible direla sinetsita dago Bidazi eta horretan ari da. «Kontsumitzen ditugun produktuak ekologikoak izatea nahi dugu, gorpuzta modu osasuntsuan elikatzeko eta ingurume-

BIDAZIKO KIDEEKIN SOLASEAN

Mikel LEIZA | ARANTZA | Bidaziko ekoizlea

«Bidazi bezalako proiektuek bertako ekoizpena bertan kontsumitzeko aukera ematen dute»

Letxugak, azelgak, tomateak, ilarrak, bertako artoa... Garaian garaiko produktu saila ekoizten ditu Mikelek amaren baserri ondoko zelaian. Kanpoan prestatua duen 0,4 hektareako lursailean eta 300 m²ko negutegian lantzen ditu horiek guztiak, eta denak ere tratamendu kimikorik gabe, ekologikoki. Betidanik sinestu izan du ekoizpen ekologikoan, eta horren seinale, produktu kimikorik gabe asfaltatik lan egin omen dute baserriko lurretan. Joan den udan, ordea, ekoizpen ekologikoa lanbide ere bihurtu zen Mikelentzat eta halaxe da geroztik. Pozik mintzatu zaigu, bere produktuak «uste baino erantzun hobea izan dutela» adierazi baitigu.

«Ekoizpen ekologikoak dituen onuragatik eta produkzio era hortan sinetsita», ez zuen zalantzarik izan Bidazin sartzerako orduan. Halako proiektu bat «inguruan beharrezkoa» dela pentsatzen du eta Bidaziko ekoizle ez ezik, bazkidea ere bada. Ez hori bakarrik. «Denborarekin bertze onura handi



bat ere» ikusi dio Bidaziri: «garai batean, hemen baserri bizi zen jendea. Orain ezinezkoa da, merkatuak jartzen dituen prezio baxuekin eta bitartekariak dituzten irabaziekin baserriarra beti zanpatua gelditzen da. Bidazi bezalako proiektuek bertako ekoizpena bertan kontsumitzeko aukera ematen dute eta hori hagitz garrantzitsua da». Eta gainera, garai bateko estilora. Horregatik, «lehen egiten zen bezala ekoiztera animatu» nahi izan ditu baserriarrak. Mikelek garbiro baitu, produktu ekologikoek «abantaila aunitz» dituztela uste baitu: «alde batetik, lurreko bizidunen arteko oreka lortzen da eta honek landareen gaixotasun eta plagak guttitzen ditu. Gure osasunerako ere hobea da. Jaterakoan elikagaiek duten gustua ere aunitzez hobea da».

BIDAZIKO KIDEEKIN SOLASEAN

Eukene XURIO | ZUGARRAMURDI | Bidaziko bazkidea

«Bidaziri esker kalitateko produktuak erosten ahalko ditut, eta janari sanoagoa janen dugu, osasuna zainduz»

Bidazi bezalako egitasmo bat «beharrezkoa» iruditzen zitzaiolako, elkartearen berri izan bezain laster bazkide egin zen Eukene, gan den azaroan. Eta ez damutzen, kontent dago: «Bidazik nire printzipioekin bat egiten du: janari ekologikoaren alde dago, baita eskualdeko laborarien alde ere. Horrez gain, bazkideak elkarteko lanetan inplikatzeko garrantzitsua iruditzen zait, gure antzinakoak ere horrela aritzen baitziren, elkarri lagunduz». Aitortu digunez, Bidaziri esker «kalitateko produktuak erosten ahalko ditut, eta janari sanoagoa janen dugu, osasuna zainduz». Gisa honetara, «trankilago» sentitzen dela dio. Bere irudiko, produktu ekologikoak «osagarri-rako aise hobekaitza baitira eta lurrendako ere bai». Urte andana omen ditu produktu ekologikoak kontsumitzen: «baina batez ere haurrak izanez geroztik seriozago hartu dugu gaia». Merkatuan gisako produktuak gero eta gehiago aurki daitezkeela onartu arren, «espres ibili behar da bilatzen, leku berezie-



tan. Horrek afera zailtzen du». Bere kasuan Donibane Lohizunen erosten omen ditu, eta baratzea dutenetik barazki ekologikoak egiten omen dituzte.

Prezio altuak izaten dira aunitzetan jendeak horrelako produktuak ez erosteko aitzakia. Baina zugarramurdiarrari hori ez zaio axola: «ez dut uste alde handirik izanen denik, eta hala izanda ere, bakoitzak ikusi behar du dirua zertan enpleatu. Niri ez zait inporta pittat gehiago gastatzea, kontsumitzen dudana ona baldin bada».

Eukenek behintzat garbi du, «kontsumitzaileendako ez ezik, eskualdeko laborariendako ere onuragarria da Bidazi. Nekazaritza ekologikoaren lurra garbiago izaten laguntzen dugu, eta lur garbi horretatik guri ere produktu garbiak ailegatuko zaizkigu».

nari ahalik eta kalte guttietan egiteko. Produktu horiek ahalik eta hurbilen ekoiztiak izatea nahi du-

gu, logikoa iruditzen zaitzula Nafarroako produktuak kontsumitzea eta ez Hego Ameriketakoak.

Zonaldeko ekoizleen produktuak kontsumitu nahi ditugu, gure baserri-tarrek bizimodu duin bat

izatea nahi dugu». Horretarako lehen urratsa eman du Bidazik, eta gainera kooi bidea ireki ere bai.



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Tren geltokian

Sabela estutzen zaizunean, taupadak bizkor-tu, hasperenak luzatu, eskuak izerditu, ezta-rria lehortu, denbora motelegi doala sentitzen duzunean: zain zaude orduan. Zain, zerbaiten zain; beharbada, norbaiten zain. Orduan, erlojuko orratzek nagituta egiten dute bidean aurrera eta mundua azkarregi igarotzen zaizu paretik; jendea ikusezina da zure begien aurrean eta gorregiak belarriak hitz horiek entzuteko, musika hori jarraitzeko. Zainetatik igarotzen zaizkizu inurriak, mundua orain zure barnean dago. Ez dago ezer kanpoan, ilun dago dena. Zure begiek dute soilik argitzeko gaitasuna, zure begiek dute fokua. Eta fokua horri duzu begira, zain kontzen zaituen objektuari, uneari. Zain zaude. Berandu datorren trenaren zain, irrikatan espero duzun etorreraren zain, aurrera jarraitzeko beharrezkoa duzun berri horren zain, zure ezpainetara heldu ez den muxu horren zain, bere zain.

«Orduan, erlojuko orratzek nagituta egiten dute bidean aurrera eta mundua azkarregi igarotzen zaizu paretik»

Ezpala
Aitor AROTZENA

Gibelera eginez aitzinera goaz

Arropa bitan erabili eta bota orde, konpondu, berrerrabili eta gordetzera bueltatu gara. Urte osoan usain eta gusturik gabeko tomate gorri perfektuak jan beharrean, garaian garaiko eta hurbileko fruta eta barazkiak dastatzen ditugu berriz ere. Zabor poltsak arraultze-oskola, sagar-txokota eta janari hondarrez bete beharrean, lurrari bueltatzen diogu lurrarena dena. Aitzinera goaz.

Nabarmentzekoak



Arantxa IPARRAGIRRE
Leitzako alkate

Oier Eizmendik dimisioa eman zuen martxoaren 28ko batzarrean eta 31 urteko Arantxa Iparragirre zinegotziak hartu du lekukoa. Leitzak emakume bat dauka alkate lehen aldiz.



Xabier EUZKITZE
Ibardinen omeneko dute

Apirilaren 26an Ibar- dingo Mendiko jatetxean antolatutako kantu zahar afarian omeneko dute. Bankako Menditarrak ariko dira kantari eta Colina eta Gaztelu- mendi bertsotan.



Alaitz REKONDO
Bertsotale Elkartoko lehend.

Nafarroako Hezkuntza Departamenduak *Bertsolaritza irakaskuntzan* programa finantziario gabe utzi du. Bertsotale Elkarteak bere konpromisoak betetzeko eskatu dio Gobernuari.

Aztera begira → 2004-IV-22 / TTIPI-TTAPA 372. zk.



Pedro Zapata Arizkungo arotzarekin solasean

Baztan aldean, sutik eta esku aritzen zen arotx bakarra zen Pedro Zapata arizkundarra. «Arotxak afizioa behar du, lan bortitza da, baina goxoa neguan» zioen. Burdinarekin egiten ahal den guzia egiten omen zuen: sutarako burdinak, taloburdinak, berak diseinatutako mahaiak eta aulkiak, butakak, ohatzeburuak, danbolinak, argizaiolak, laratzak, apaingarriak, lanparak, ferratzeko il-tzeekin egindako figura tikiak... «Jendeak ez du ezagutzen lan hau. Lana egi-na ikusten du eta *Zein polita!* erran, baina hartara ailegatzeko gibelean dagoen eskulanean ez du pentsatzen» erran zigan arizkundarrak.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2014ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Hau da destino petrala

Juainas PAUL ARZAK

Yolandaren amatxik euskara zekielako, behar bada...agian, Burgos eta Bizkaiarekin- jaio eta bizi-, Nafarroako erreinuaren eremu ohiak edo mugakoak, hirutasun pertsonala osatu zuelako... Nafarroako unibertsitateak, Kataluniako Autonomia eta Euskadikoa erabiltzen jakin duelako, lauetan arituz... aurrez xedatua, predestinatua zegoelako dugu lehendakaria? Jainkoak izendatua denik gehiegixko badirudi ere, nola ulertu bestela garai batean Nafarroak konkistatu zuen Albaniarekin Yolanda izandako harremanak? Hango esne-ekoizpena garatzeko FAOren mandataria izan zen, aizu!...Reino de Navarra-ko Osasuna eta Lacturale batuketaren aurrekaria? Eta gero politikan sartu zen, Belateko tunelaren garaian...hain xuxen.

Nire arreba gazteenak zera esaten du beti: kasualitatea existitzen denik ez da sinetsi behar. Horrela bada, hau dugu, hau dun/k, hau da destino petrala, patu, zori edota halabeharra. Arreba ikaragarri maite dut, baina ez nator berarekin bat... zenbait gauzetan. Eta Yolandarena ez da ez patu, ez destinoa.

Niretzat nago abilezia dela, jakinduria.

Zer daki? Akademikoa bazter utzita, eta asko baztertua da, gu nola marentu, erabili eta bera beti zutik nola mantendu du ikasia. Egiten duena egina, aurkariaren elkar ulertezintasunen bazterrak nahasi, eta listo, zentsura mozioaren denbora pasarekin erakutsi zuen bezala.

Akademikoki bere meritukak ditu. Politikoki, segun eta nola. Maltzurkeria goraiatu behar dela iruditzen zaizu? Nabai-geroabai-bildu-aralar-zabaltzen-eaj-sortu-batzarre-ezkerbatua-sozialistakomen elkartu behar zirelako parrez lehertzen eduki genuen emaztekoa. Eta hain urrutira joan gabe, hainbeste talde ados jartzeko beharrik izan gabe.. Biktima zer den ez badakigu, bata bestearen mina ukatzea erazago egiten bazaigu barkamen eskatzea baino, nireak bai/zureak ez jokoan aritzen bagara...Goiatik hasita, goi mailako omen politikoeke bakea bilatzeko bidean elkar joka...behekoek ikasita....

Benetan miserable iruditzen zait Doneztebeko Ekaitzaren kasuan Arzallus eta Maiari mezua bidali zionarena. Ezker-abertzale jarrera eskuindar dogmatiko eta mesprexuzkoa. Zure eta gure kalte!

Holakoetaz baliatzen da gure Yolanda, 2015eko gure lehendakaria izanen den bera. Zer apustu? Batzuk benetako politika egin behar dutela? Batasun logikoa lortuko dela?

Arreba aipatu badut, amona nuena zergatik ez? Hark, ataundarra izaki, Ezkioko amarjinetan sinesten zuen, Vatikanok onartuko ez zuen bat.

«Gu nola marentu, erabili eta bera beti zutik nola mantendu du ikasia. Egiten duena egina, aurkariaren elkar ulertezintasunen bazterrak nahasi, eta listo, zentsura mozioaren denbora pasarekin erakutsi zuen bezala»

Garai bateko Nafarroa jatorra

Joseba URRUTZ

Berriki eskutan izan dut Juan Iturralde y Suit idazle nafarraren lan batzuk biltzen zituen liburuxka bat. Ez nekien deus gizon honi buruz, Iruñean karrika batek bere izena duela berterik, eta txokatu ninduen ikasi nuenak.

1840an jaio zen Iruñean, eta Sabino Arana jaio orduko, bera hasia izanen zen Nafarroaren euskalduntasun eta burujabetza defendatzeko ahaleginetan, beti ere kristau fededunaren ikuspegitik. Bere lanetatik orri batzuk irakurri orduko, nabari da nola goraiatzen dituen lehengo garaiak eta baloreak: jakinduria, fedea, ohitura zaharrei errespetua, gure hizkuntza, kultura, familia elkartua eta abar; berdin gure mendi eta bazter eder eta misterioitsuak.

Kontakizun batean agertzen du nola joan zen abuztuaren 14an Orreaga ingurura, mendian gaua pasatzeko asmoz. Aspaldiko kondairak zioenez, Amabirjin eguneko gauean entzuten omen dira "hildakoen gatazka" deitzen diren hotsak, Errolan garaitua izan zeneko zalaparta eta irrintzi zirraragarriak.

Hiru belaunaldiak elkarrekin bizi ziren borda batean hartu zuen ostatea, eta afari xumearen inguruan egunero ko lanei buruz eta hainbat kontuetaz nola aritu ziren erausian kontatzen du. Historio haren berri galdetu zue-nean, guraso gazteek ez omen zuten ezagutzen, haurrek berriz, burla egiten omen zuten; atautxik ordea, bai ezagutu eta sinesten omen zuen kontakizun hartan.

Hara, euskal giro jatorra azaltzen du. Gaur egun ordea, berak berpiztu edo mantendu nahi zuen Nafarroa euskaldun hartako etxe guttitan bizi gara hiru belaunaldiak, egunero ko nekazaritza aferei buruz solas eginez, kristau giro jatorrean. Orduko, haurrek zaharren kontuei nola irri egiten zieten, erakusten du, gauzak galtzen ari zirenean erakusgarri bezala edo.

Gauzak aunitz aldatu dira geroztik, 20 urtez aldatu badira, ze erranik ez 130 urtez.

Hunatx nere galdera: galera larria al da Iturralde y Suiten idealizatu eta goraiatzen zuen eskaldun, fededun, zintzo eta lurrari lotutako nafarren bizimoduaren erabateko aldaketa hau? Pena al da, edo nahitanahiezko eboluzioa? Aspaldiko bizimodu eta balore horiek betiko agurtu al ditugu? Al datu al da Nafarroa jatorrearen prototipoa?

«Galera larria al da Iturralde y Suiten idealizatu eta goraiatzen zuen euskaldun, fededun, zintzo eta lurrari lotutako nafarren bizimoduaren erabateko aldaketa hau? Pena al da edo nahitanahiezko eboluzioa?»

Irakurleak mintzo

Hamaseigarre-
nean aidanez
hemen da
poesia

Ainara MAIA URROZ

Aurten ere hamaseigarren "Hatsaren Poesia eguna" giro goxo eta aberats batean iragan da igande eguzkitsuz, apirilaren 6an. Hona hemen, oroitzapen bat denei igortzen dieguna, igandean egongineno eta egon ez zirenei. Sakonetik eskeretzen ditugu etorri diren guztiak, baita etorri ez diren beste guztiak ere, dakigulako arras ongi bizitzak digula une bakoitzean esaten, norberak, noiz non zer egin behar duen. Saiatuko gara aste honetan, 'olerkari neguna'4 blogean bildumatxo bat eta argazki batzuk ezartzen. Anartean izan ontsa. Hatsa elkartearen Auxtin Zamora poeta lagunari eskerronez xorino hau.

Xorinorekin batera etorri zaizue udaberria iparraldetik, Europaren bihotzetik bihotz-bideetan, eta udaberriaren hasieran zorioneko eta eskerroneko naiz, denon maitasuna eta adiskidetasuna dudalako. Udaberriaren hasiera honetan zorioneko eta eskerroneko naiz, maitasuna besterik ez dudalako bihotz honetan.

Apiril eguzkitsu honetan negua joan dela dirudi, eta hori sinetsi nahi du ene arima ho-

tzak. Kosta egiten ari zait neguko barneko hartza ateratzea, baina saiatzen ari naiz; bizitza nola hartzen duzun, halakoxea delako. Bihotza malenkoniatsu eta tristura ttantta batekin, baina irribarre xumea ezpainetan, ohartu naiz bizitzaren poesiak garramatzala gu guztiok batera ibai berean maitasunez, eta hatsaren poesiak blaitu naiz Seneren, lagun poetak agurtuz urtero legez, eta haiekin arratsalde atsegina eta poetikoa igaroz, poetoi aukera eman ez argitaratzeko eta elkartzeko. Ez dakigu zer den poesia, baina poesiak bizi gaitu eta poesia hemen da, liburu handi honetan.

Banoa jada, banoa, xorino kanthari edo olerkari ameslari, eskerronez enara honek udaberria ekarri dizue eta ni, ene lurtean oinak pausatutik, berriro ere airatuko naiz iparraldeko Europaren bihotzera, bihotz-bideetan. Iparra galdurik bainenbilen amodiominez, baina orain badakit non dudan ene bihotza. Eta banoa, jadanik dena idatzi dut. Poeta lagunak agurtu ditut bihotzez hurrengora arte, eta banoa poesiaren hatsaz elikatzen segitzera. Banoa ene maitea bihotzean beti, urrun eta banandurik egonik ere, hurbil eta elkarrekin baitaude. Laster udaberri honetan elkartuko garrelakoan, baina beti ere poemak idazten.



Bota bertsoa

Ander Fuentes «ITTURRI» (Zubieta) • Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

Behar dugun hori

Pentsatu gabe ezpainek txistuz
jotako kantu arraxa
amak kantatuz doinu bat dugu
haurra baretzen kapaza
eri dagoen batentzako da
galdutako esperantza
damu den hari laguntzen dio
kentzen barneko arantza
ligoteoan lotsatiaren
atrebitzeko urratsa
berdin goiz edo arratsa
bizi erritmoen dantza
soinu banda bat osatze hori
ongi entzutean datza
musikak sarri ematen digu
bizirauteko arnasa.

Izan daiteke reggae-a, popa
edota rock radikala
txaranga, tuna, orkestra edo
eliz bateko korala
berdin musika klasikoena
edota heavy metala
ahots ederrez egina edo
kantu bat instrumentala
piano, txistu, gitarra, tronboi,
trikitixa, atabala
sol sol do mi re si fa la
kopia zein originala
musikak duen aukera dugu
anitz eta zabala
beraz norberak gustatzen zaion
hura gozatu dezala

Anbulantziak
greban

Andrea CANTERO GARA-COCHEA (Baztan-Bidasoako Anbulantzien UGTko idazkaria)

Nafarroako Osasun garraioak hilabete eta erdi darama mugagabeko greban, greba eskubidea kentzen duten gutxiengoko zerbitzu neurrigabekoak eginez eta patronalaren negoziatziorako borondate eza jasanez. Hitzarmenaren negoziatziorako egiten diren bileretara Patronala gero eta neurri gogorragoekin agertuz, argi uzten du ez duela hitzarmen berri batera heltzeko inongo interesik. Gurea, administrazioak onartutako diru-sarrerara jasotzen duen sektorea izanik, krisialdiaren aitzakia erabilita soldataren jaitziera eta eskubideen galera inpo-

satu nahi dizkigute.

Hori gutxi ez balitz, langileak oraindik gehiago zigortzeko asmoz eta legedia urratuz, enpresako ziurtagiria ukatzen digute, Lanbide Heziketako Larrialdietako Teknikoko titulua lortzeko beharrezkoa den ziurtagiria eta sektorean lanean jarraitu ahal izateko 2012tik derrigorrezkoa dena.

Gatazka gogortuz eta presiorako bertze neurri bezala, Baztan Bidasoako enpresak apirileko soldatan langileei 500 euro kentzea erabaki du. Honetarako, pisuzko arrazoiak ez dutenez, likidezia falta dutela argudiatzen dute, baina, Osasunbideko ordezkariak beraiek egin beharreko diru-sarrerak egin dituztela konfirmatu digute. Hala ere, Baztan Bidasoako enpresak ez du inongo arazorik Iruñeko basean beharrezkoak ez diren inbertsioak egiteko.

Orain, gatazkaren eki-

mena Nafarroako Gobernuaren administrazioak hartuta, inongo justifikaziorik ez duen laudoa inposatzeko mehatxua egin digute. Gutxiengo zerbitzuak %100ean betetzen ari gara eta ez da indarkeriaren aztarnik langileen partetik. Hala ere, Patronalaren eskutik joan da, laudoaren inposizioak gure lan baldintzen ezezagokortasun eta urritasuna ekarriko du, Estatuko Gobernuaren Lan Erreformaren baldintzak aplikatuko baitizkigute.

Baztan Bidasoako langileak beti arduratsu jokatu dugu, kalitatezko zerbitzua ematen dugu, atsedean hartzeko geldiu-nerik gabe eta 1280 euroko soldata gordina (laguntzaileek) eta 1430 eurokoa (gidariak) kobratuz.

Ez dugu uste Patronalarengandik holako tratua merezi dugunik eta ez eta Administrazioaren jarrera jasan behar dugunik ere.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Nere bizitzan zerbait gaizki zioala somatu nuen, ez nengoela nere buruarekin gus-tura, zerbait banuela. Jon Bruk Chi-Kunga erakutsi zidan, medita-zio mota bat, bizi-tzarekiko jarrera bat. Duela bartz urtetik egiten dut eta orain bizitza bihotzaren bidez enfokatzen dut eta ez buruaren bidez. Buruak bakarrik bel-durra, bekaizkeria eta boterea ekartzen du».

Iñaki MTNEZ. LIZASO
Doneztebeko ostalaria
D.NOTICIAS 2014.03.31



«Iruñean espediente-ak, txostenak, papera mugitzen da tonaka baina praktikan, men-dian gauza txiki bat lortzea oso zaila izan daiteke. Txostenak egin eta bidaltzen ditugu, baina gero Iruñeko labirintoetan trabatzen dira. Aldiz, obra handienak, erre-pideak, urtegiak... izu-garrizko eragina duten lanek oztopo guztiak gaindi ditzakete. Eta etsigarria da»

Juan Mari ELOSEGI
Leitzako basozaina
ARGIA 2014.04.06

11 galdera labur

Nor dugu Leire Onsalo?

Elizondoko neska ero, ttiki eta alaia da.

Nola gustorago, oholtza gainean kantari edo eskubaloi jokalaria?

Bietan gustora sentitzen naiz egia erran,baina, momentuan oholtza gainean kantari nahiago.

Kitarra lagun izatetik, Trikidantz taldeko abeslari izatera...

Ez daramat denbora asko kitarra jotzen. Hasieran afizio gisa hartu nuen, ondoren kanta batzuk kantatzera ausartu nintzen ezkontza pare batean eta horren ondotik kontzertu gutxi batzuk ematen hasi nitzen. Duela gutxi heldu zait Trikidantzeko taldekideek eskainitako aukera.

Udako agenda betetzen hasi da?

Betetzen hasi da bai , baina , oraindik ez dago gaineraino be-teal!

Bestarako txoko bat?

Aresoko pestak!

Gustuko plaza bat?

Oraindik ez naiz plazaz plaza as-ko ibili,baina eman ditudanen ar-tetik Oronoz-Mugairikoa berexia izan zen.

Abestiak sortzerako zerk inspi-ratzen zaitu?

Nire ingurua, familia, lagunak,bi-zitako hainbat egoera...

Hizkuntzak ikastea ere maite omen duzu. Zenbat hizkuntzatan dantzarazu nahi duzu mihia?

Oraingoz eskuaraz, gazteleraz eta ingeleraz moldatzen nahiz nahiko ongi. Denborarekin Alemana edo Frantsesa ikastea gustatuko litzai-dake baina denbora behar horre-tarako!

Elizondarra edo Baztandarra?

Baztandarra naiz, baina, Elizon-darra lehenago.

Elizondoko txokorik politena?

Txoko lasaia bada eta bertan la-gunekin elkartzeko aukera badut, edozein leku iruditzen zait polita!

Amets bat?

Hemendik urte askotara musi-kaz gozatzen segi ahalizatea.



Leire ONSALO DAMBORIENA → Elizondoko gaztea

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
**Nafarroan
orain!**
Berria erosi taldea

zalain
JATEBESA - RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalainjatebesa.com
zalain

expert  **BORTZIRIAK**



KONPONKETAK
ere egiten ditugu

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

ESKUALDEA

GIZARTEA → APIRILAREN 1ETIK AITZINERA ZABALIK DAGO

Donezteben elkartasun denda ireki du Lagun.Bide Zerbitzuak enpresak

Bidelagun elkartearen enpresa berriak arropa edukiontziak ere paratu ditu eskualdeko hamabi herritan

TTIPI-TTAPA

Donezteben elkartasun denda ireki du Bidelagun elkartearen enpresa berriak, Lagun Bide Zerbitzuak. Parroikia karrikako 18.ean, lehenagoko Rodri etxeko tresnak dendan irekiko du astelehenetik ortziralerara, goizeko 9:30etik 13:30era.

Denda honetan gauza aunitz aurki daitezke: Gizonezko, emakumezko eta haurren arropa, oinetakoak, lanerako arropa, toallak, jostailuak, platerak, edalontziak, mandireak, edredoiak, etxeko tresna txikiak... guztia prezio onean. Informazio gehiago bidelagun web



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Herri gehienetan bertze edukiontzien ondoan paratu dituzte arroparenak.

orrian aurkituko duzue: www.bidelagun.com

ARROPA EDUKIONTZIAK HAMABI HERRITAN

Bertze aldetik, Lagun.Bide Zerbitzuak enpresak arropa edukiontzia paratu zituen joan den larunbatean eskualdeko hamabi herritan. Edukiontzien kologia beixa da eta dagoeneko prest daude arropak, oinetakoak,

maindireak, mantak, koltzak edo poltsak bilzteko.

Lagun.Bide Zerbitzuak enpresatik gogorarazi nahi dute gai hauetik itxita biltzetan sartu behar direla eta ez dela edukiontzien kanpoan utzi behar boltsarik, arropa bustitzen bada hondatu egiten delako.

Edukiontzien kokapena:

Baztanen

- Oronoz-Mugairi: Martin Urrutia igarobidean, suhiltzaileen gunean.
- Irurita: Eskola pareko kontenedore puntuan.
- Elizondon gunen bakoitzeko prestatu dituzte: - Jaime Urrutia karrikan, esne makina ondoan Osasun etxe inguruan.- Santiago karrika eta Jaime Urrutia arteko karrikan. Artesiaga denda parean.

- Arizkungo plazan
- Erratzu: Sarrerako pisuetan

Malerrekan

- Ituren: Kontseju kalea 38, Udalaren alboan
- Donezteben: Turismo Bulegoaren aparkalekuan
- NARBARTE: San Andres kalean, herriko plazan, udaletxearen ondoan

Bortzirietan

- Bera: - Sara karrika, 1 (Agerra auzoa, Bortzirietan elektrogailuen dendaren parean).
- Eztegarra karrika (Toki Ona institutoaren parean)
- Lesaka: - Plaza Zaharreko aparkalekua - Eltzeta karrikan (Erosle / Aliprox dendaren parean)
- Xetalar: Landaburua aparkalekuan (sarrerako aparkalekua)

Xaretan

- Zugarramurdi / Urdaubi: Kontenedore 1. Ikaburua jatetxearen inguruan, bertze edukiontzien ondoan.

AGARRA
ttiipi baxetela
%5eko
DESKONTUA
liror artikuluetan

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUA - T. 637 40 86 40 - 31780 BERA - andonimasako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Digital + banatzaile ofiziala

F. LANCHAS
Akuibildorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzalea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

JAKONE-GOXOTEKIA
948 630 786
Aitzate, 21 - BERA

KULTURA → APIRILAREN 23KO LIBURUAREN EGUNAREN KARIETARA

Liburu ehizan aritzea proposatu du Toki Ona Institutuak

Liburuak “askatuko” dituzte bortz herrietan

TTIPI-TTAPA

Toki Ona Institutuak, apirilaren 23an liburuaren eguna ospatzeko liburu batzuk konpartitu nahi ditu, *bookcrossing* bidez. *Bookcrossing*a 2001. urtean sortutako ekimen bat da, mundu osoan zabaldua dagoena. Horrela funtzionatzen du: Liburuak leku publiko batean uzten dira, liburu hauetako bat aurkitzen duen pertsonak, irakurri ondoren, berriro leku publiko batean uzten du. Liburuak libreki bidaiatzea eta irakurle asko edukitzea da helburua.

Apirilaren 23an, Toki Ona Institutuak liburu batzuk “askatuko” ditu Arantzeta, Igantzi, Etxalar, Lesaka, eta Beran. Liburuaren “ehiza” errazteko, liburuak askatu ondoren izenburuak eta kokapenak argitaratuko dira *Bookcrossing* webgunean: www.bookcrossing.com eta Toki Onako blogean: tokionainsti.blogspot.com.



UTZITAKO ARGAZKIA

Antzezlanaren Enaitzen alde

Emaizta antzerki taldeak *Esperando a la inglesa* antzezlanaren eskaini zuen berriz ere Kultur Etxean, oraingoan sarreran bildutakoa Enaitzi emateko. Gainera, antzezlanaren ondotik, Enaitz Gara guraso taldeak prestatutako bideo hunkigarria ere eskaini zuten. Bertan, Porrotx pailazoak Enaitzen historia azaltzen du eta hainbat pertsonai famatu agertzen dira. Emanaldiaren ondotik, Nagore Arretxea, Enaitzen amak eskerrak eman nahi izan zizkien bertaratu, bai ekimen honetan, bai bertzeetan laguntzeagatik. Apirilaren 11n, Enaitzen aldeko pilota jaialdia antolatu zuen Bortzirriak Pilota elkarteak.

Liburuaren Eguneko ospakizunen baitan, bertaldea, apirilaren 30ean Eneko Haritza haurrentzako ipuin kontalaria izanen da 18:00etan liburutegian. Bere saioaren ondotik, orri-markako lehiaketako sari banaketa ere egingen da.



Ba al zenekien

Illekuetako zubitik abiatuko dela Bera Kantaria apirilaren 26an, 19:00etan.

FLASH

Xabier Euzkitze omenduko dute Ibardinen

Xabier Euzkitzeri omenaldia eskaintzeko kantu zahar afaria antolatu du Angel Mariezkurrenak apirilaren 26an Ibardingo Mendiko jatetxean. Sustrai Colina eta Beñat Gaztelumendi ariko dira bertsotan eta Bankako Menditarrak abesten, Jaione Olazabal, Alberto Zunarren, Aitor Ibarra eta Francisco Santxotenaren laguntzarekin. Bigarren urteurrena ere ospatzen du Mendikok.

Lagun askeak erakusketa

Txo taldearen *Lagun askeak* erakusketa (eskulturak, pinturak...) ikusgai dago Kultur Etxean apirilaren 15etik maiatzaren 4ra. Astearretetik igandera, 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 19:00etara (igande arratsaldez itxia) zabalduko dituzte Kultur Etxeko ateak.

GIZARTEA → APIRILAREN 18RA ARTE AURKEZTEN AHAL DIRA LANAK

Hamargarren Gazte Eguna iragartzeko kartel lehiaketa deitu du lehen aldiz Kaxerna Gaztetxeak

TTIPI-TTAPA

Kaxerna Gaztetxeak antolatzen duen Gazte Eguna hamar urte beteko ditu aurten, 2004an egin baitzen lehenbizikoa. Aurtengoa maiatzaren 24an egingen da eta egitarau polita osatzen ari dira.

Herriarren partehartzea bultzatzeko, berrikuntza modura, kartel le-

hiaketa ere abiatu dute. Lanak apirilaren 28a baino lehen bidali beharko dira kaxerna_gaztetxea@hotmail.com helbidera. Bertan, 10. urteurreneko logoa sartu beharko da eta *Berako Gazte Eguna 2014* esaldia modu argian azaldu beharko da. Behin behinako kartela aukeratuak, Kaxernako kideek gehituko diote egitaraua.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

ola
SAGARDOTEGIA
102 Meaka auzua • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizaturik
- Sagardotegiko menua
- TXOTX GARAIAREN IREKIA

elika
Dietetika • elikadura

IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Izlea, 6 behe 31780 BERA
948 631 283 645 708 512
elikabera@hotmail.com

LESAKA

OSPAKIZUNAK → APirilAREN 26AN

Ekitaldiz gainezka dator aurten ere Gazteguna

Lasarteko gazteak gonbidatu dituzte

Aitor AROTZENA

Ametsari tira ta tira, gaztetxia herrira! goiburupean Gazteguna antolatu du Lesakako Gazte Asanbladak apirilaren 26rako. Iaz, Leitzeta eta Berako gazteekin egin bezala, aurten Lasarteko gazteak gonbidatu dituzte, "elkarrekin besta egun hau gozatu eta beraien esperientzietatik ikasteko asmoz". Izan ere, Gazte Asanbladaren egun garrantzitsua da, "antolakuntzan, lanean, aldarrikapenetan eta bestan bertan ere, gazte desberdin guztioi elkarrekin jarduteko aukera ematen baitigu".

EGITARAUA

- 10etan Karrika buelta, herriko musikariekin.
- 10:30ean Gosaria eta Lasarteko gazteei ongi etorria.
- 11:00etan Jinkana
- 13:00etan Makarroi txapelketa eta pankarta egitea. Makarroiak, olioia eta gatza Gazte Asanbladak paratuko du eta gainontzekoa partehartzaileen esku.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Kasik 200 dantzari bildu ditu Tantirudantzak

Tantirumairu euskal folklore taldeak antolatutako Tantirudantza jaialdia apirilaren 6an ospatu zen. Herriko dantzariekin batera, Getariako Gure Txeru, Falzesko Makaia eta Oiartzungo Haurtzaro taldekoak aritu ziren, kasik 200 dantzari. Egunpasa bikaina izan zuten, eguraldia lagun.

- 14:30ean Bazkaria. (5 euro txapelketan parte hartzen dutenek, gainekoentzat 8 euro). Apuntatzeko, Arranon eta Atxaspin.
 - 16:00etan Jokuak.
 - 19:30ean Berendu afaria.
 - 20:00etan potea Skandalue, elektrotxaragarekin.
 - 20:30 Kontzertuak ostatuetan. Koxkillan Oharkabe taldea ariko da, Arranon Kalera eta Atxaspin Huuh taldea.
- Azken urteetan bezala, mozorrotuta etortzeko eta norberak bere edalontzia ekartzeko deia egin dute.

GIZARTEA → SAN FERMIN ELKARTEA

Maiatz hasiera mugitua izanen dute aurten ere erretiratuek

A.A.A.

Urtero bezala, maiatz hasiera mugitua izanen dute San Fermin erretiratu elkarteko kideek. Maiatzaren 1ean ibilbide neurtua egingen dute. Goizeko 9:30ean eman beharko dute izena eta 10:00etan abiatuko da lehen bikotea egoitzatik eta Landazelaiak, saihezbidea, Osasun Zentroa, parkea, Sumusa, Kastillobaita, Irubide, Martxanpaita, Txakaingo zubia, Matxitenea, Lizardibaitako zubia, Eroski eta plazan barna berriz ere egoitzara bueltatuko dira. Ondoren hameketa-koa izanen dute parte hartu duten bazkideek. Hilaren 4an, Ama eta Amaxien eguneko bazkaria izanen dute egoitzan. Txartelak apirilaren 30a baino lehen hartu behar dira, 20 eurotan.

FLASH

Lur ez urbanizagarrien plan berezia jendaurrean

Lur ez urbanizagarrien plan bereziaren aurkezpena egingen du Udalak apirilaren 15ean, astearte arratsaldeko 8etan Herriko Etxeko batzar gelan. Plan honen helburua, ez urbanizagarriak diren lurretan baimendu daitezkeen jarduerak erregulatzen dituen arautegia definitzea da. Ilbeltzaren 31ko batzarrean eman zitzaion hasierako onespina Javier Lekuona arkitektoak landutako plan bereziari eta hilabete batez jendaurrean jarri zen espediente. Gaiak duen garrantzia dela eta, erakusketa publikoaren epea apirilaren 28ra bitarte luzatu da.

Bestetako kartelak eta portadak ikusgai

Lanak aurkezteko epea bukatu ondotik, apirilaren 17tik 27ra kartel eta portada lehiaketako lanak ikusgai izanen dira Harriondoan. Bozkatzeko aukera ere izanen da.

Musika Eskolako kontzertua

Musika Eskolak Uda-berriko kontzertua eskainiko du apirilaren 16an, asteazken arratsaldeko 6etan Harriondoa Kultur Etxearen Txokobiko aretoan.

FAUSTINO
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - etea 21-22
31780 BERA

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

IRU BIDE
Eretegia - Asador
Bidasoa, 3 - LESAKA
Tel: 948 637 127

XATIAITXEA OSTATUA
BIDASOA, 10 - LESAKA
Tel: 948 637 127

GIZARTEA → INFORMAZIO BILERAK EGIN DITUZTE

Hondakin organikoaren konpostajea indartzen ari da

Hainbat zabor ontzi berde kendu dira eta zuria jarri arropa biltzeko

Irune eta Itsaso

Azken hilabeteetan Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Mankomunitateak zabor organiko konpostatzea bultzatu nahian dabil-tza. Elkar lanean ari dira, herriz-herriz informazio bilerak egiten. Gurean martxo bukaeran eta apiril hasieran hiru bilera egin dituzte, azkenak apirilaren 14an eta 15ean. Apirilaren 28tik maiatzaren akabera bitartean, herri guztietatik barna ibiliko dira Mankomunitatekoak, heziketa jardunaldiak eginaz, jendeari konpostea nola egin behar duen erakusteko. Gai

honekin zerikusi zuzena dauka azken egun hauetan hainbat zabor ontzi berde kendu izanak. Hemendik aitzine-ra, konpostea egiten duten herritarren kopurua gora egin ahala, aunitz jaitziko baita ontzi berdeetara botako den zaborra. Bertze aldetik, herri sarrerako aparkalekuan zabor ontzi zuria jarri dute. Ontzi horretara arropa, oinetakoak, maingidireak... botatzen ahal dira poltsa itxietan.



ARGAZKIA: JABIER IRIARTE
Informazio bileretako bat.



ARGAZKIA: M^a LUZ ARIZTEGI

Jakoba Errekondoren hitzaldia

Apirilaren 5ean izan zen solasaldia Larraburuan. Baratze, lore, zuhaitz, txerto eta bertze hainbat gai buruz solastu zen Jakoba eta bertaratutakoek egindako galderei erantzun zien. Ondotik, elkarteak eskainitako berendu goxoa das-tatzeko aukera izan zuen jendeak. Antolatzaileak gustura daude hitzaldiak izan-dako arrakastarekin, jubilatuen elkarte oraingoan jendez bete baitzen.

Larraburua jubilatuko elkartearen batzar orokorra

Elkarteko zuzendaritzak ohiko batzarra deitu du apirilaren 27an Larraburuan eta bazkideei bertara joateko deia egin diete. Eguerdiko 12:30ean izanen da batzarra gai zerrenda honekin: elkarteko egoera ekonomikoa eta 2013ko kontuen azterketa, 2013an burututako ekintzak, aurten burutu beharreko ekitaldien plangintza, bazkideen zerrendan izandako aldaketak, zuzendaritza aldaketak eta azkenik



ARGAZKIA: SONIA GAINZA

Larre erreketak

Mendi Xorrotx eta Azku aldean larre erretzen aritutakoek Nabarlako soroan eguraldia lagun, giro ederrean bazkaldu zuten apirilaren 5ean.

eskaerak eta galderak. Batzarraren ondotik ha-

maiketako eskainiko da.

XAGU
LIBURUDENDA
Tel./ Fax: 948 638 232

Apirilak 23
liburuaren egunean
710eko DESKONTUA
liburuetan

"TELLETXEA"
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESACA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorzaintza.com

José I. Gonzalez Enguita
Binturak

borrikak eta litzadak
tel. 666 235 466

ARANTZA

GIZARTEA → PELLE TTIKIREN ALDE

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen taldeak bizipoza banatu du

Pelle Ttiki Haur Eskolari bulkada emateko babes ederra izan da

Nerea ALTZURI

Joan den apirilaren 5eko arratsaldea ederra izan zen. Pirritx, Porrotx, Marimotots eta konpainiak herrira bisita egin zuen. Pelle Ttiki Haur Eskolak bizipozez eta auzolanean arratsaldea prestatu zuen eta erantzun ezin hobe izan zuen proposamenak, ehunka lagun hurbildu baitziren herriko frontoira. Hitzek, dantzek, kantek... tarte polit bat pasarazteko modua eman zuten. Pailazoak, dantzariak, Panpoxa, Txilibito, Loreto Hobeto, Lagun, Igor...

Bitartean, alkate, zinegotzi, gazte... haureskolako hezitzaile, guraso, atautxi-amatxi, izabaosaba talde bat opilak egiten, krispetak prestatzen eta ostatuan lanean

aritu zen. Ikuskizunaren tartean eta ondotik eskaintza horiek estimatu zituzten bertaratutakoek. Pelle Ttiki Haur Eskolaz gain, Enaitz Berako haurtxoa present izan zuten pailazoek. Frontoi sarreran, Enaitz Garaguraso taldea kamisetak saltzen aritu zen eta jakin dugunez, kamiseta aunitz saldu zituzten.

Elkartasuna, auzolana, bizipoza... sentitu genituen eta Koldobike Gorostiza hezitzaileak egindako aurkezpenean, hasieratik aipatu bezala, mila esker Arantzara bertaratu zineten guzoi.

Elizkizunak

Egun hauek aunitzentzat besta egunak izaten badire ere, ostalaritzan lan egiten dutenentzat lanegunak izaten dira. Ostatuetan, aterpean, landa-etxeetan... mugimendua nabaria da herrian ere.

Fededun eta eliztarrentzat ere egun garran-



ARGAZKIAK: G. PIKABEA

Pirritx, Porrotx, Marimotots eta euren lagunek giro ederra paratu zuten frontoian eta hainbat herritarren lanari esker, arratsalde borobila atera zen.

tzitsuak dira. Hori horrela, egunero, mezak izaten dira: Ortzegun eta Ortziralek elizkizuna 17:30ean izanen da; Ortzeguneko Ordu Santua 21:00etan; eta larunbateko elizkizuna 18:30ean izanen da.

Bertzalde, hilaren 26an Sendotza izanen da. Aurten Arantzari tokatu zaio eta 19:30ean

hamaika gazte konfirmatuko dira. Sei herriko gazte eta bortz igantziar izanen dira.

Oporrak Madeirara

Heldu den ekainaren 30etik uztailaren 7ra Madeiran oporraldia antolatuko dute. Azken urteotan bezala, taldeko oporraldi gidatua da eta aldi honetan, Madeira artxi-

pielagoa ezagutzeko modua izanen dute. Portugalgo eskualde autonomo honetako xoko aunitz bisitatuko dituzte: Funchal hiriburua, Camacha, Santana, Camara Los Lobos eta Porto Moniz kontzejuak...

Aipatzekoa da, bidaiak aurkeztu eta aste batez autobusaren eserleku guztiak bete zirela.

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
Sukalderako altzariak

Berean etxea • LESAKA
Tel: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

IMANOL ITURRIA
ZURGINA

Enpresa eta partikular
T. 661 577 137
E-posta: imainuria@hotmail.com

Eskatu asarrekontua konpromisoerik gabe

ZUBIONDO
Jatetxea

sugardotegia jatetxean

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 637 472

A

aterpe
albergasun jatetxeen ostiatu

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

KIROLA → MAIATZAREN 1ETIK 4RA

Udaberriko bestak antolatu ditu Euskara Batzordeak

Udaberri On musika jaialdia egingen da maiatzaren 3an

Joxean ORTEGA

Udaberriko Bestak izanen ditugu maiatz hasieran, eta hau da Euskara Batzordeak prestatu duen programazioa:

MAIATZAK 1, ORTZEGUNA

• 10:00etan *Berri-zaun: bere historia eza-gutuz* Ibilaldi gidatua plazatik abiatuta (iraupena: 3 ordu)

• Arratsaldean Igantzi kantari (Aitzinetik bi entsaio: apirilaren 11 negin zen lehena eta apirilaren 24an, ortzeguna 20:30ean zentroan bigarrena. Dantza taldearen saioa. Opil jatea.

MAIATZAK 2, ORTZIRALA

• 15:00etan Haur eta

gurasoen mendi irteera.

• 21:00etan *Buah Txabal!* antzezlanaren proiektzioa eskolan.

MAIATZAK 3, LARUNBATA UDABERRION EGUNA

• Goizez Iñigo Seguro paisajistarekin lo-rezaintzari buruzko ikastaroa herriko etxean (goiz osoa)

• Arratsaldean Trikipoteoa (herriko trikitilariekin; lotu gabe)

• 23:00etatik aitzinera Kontzertuak: AZ/DZ, Gose eta Bad Sound Sistem.

MAIATZAK 4, IGANDEA

• 17:00etan Haurren antzerki emanaldia Bartzondon.

Hainbat kinto besta ere izanen direnez, giroa ziurtatua dago.

Ba al zenekien

Eskolako ikasleek baratzea egingen dutela aurren ere, produktu ekologikoak landuz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gure Esku Dago dinamikaren aurkezpena

Gure esku dago dinamikaren aurkezpena egin zen apirilaren 4an. Gaiak interesa piztu zuen eta 34 lagun hurbildu ziren bilerara. Ondotik, taldeko argazkiak atera ziren. Ekainean Iruñea eta Durango lotuko dituen giza kateari begira, ondoko asteetan herrian gaia lantzen jarraituko dute.

Euskal Herriko Txirindulari Itzulia

Euskal Herriko Itzulia Igantzitik pasa zen eta goi mailako txirindulariak bertatik bertara ikusi genituen. Herriatik pasatzerakoan Beñat Txoperena igantziarra dela aipatu zuten ETBn, baita azken urteetan erakutsi duen maila aparta ere. Ea honelako aipamen gehiago entzuten ditugun. Aupa Beñat!



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Aste Santuan irekiko ditu atea Irrisarrik

Irrisari turismo guneak Aste Santuan atea zabalduko ditu. Estatuko zubi tibetar luzeena ere bertan izanen omen dute. Argazkian, Baxi maskotarekin ageri dira Irrisari herri kirol taldeko neska-mutikoak.



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com



Ingurumen Zerbitzuak
• PINADIEN BALORAZIOAK
• LUR NEURKETAK
• KARTOGRAFIA, PLANOAK ...
• INGURUMEN TXOSTENAK ÖROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA

IGANTZI - LEGASA
T. 606 31 45 26 andreszelaieta@hotmail.com

SUNBILLA

GIZARTEA → APIRILAREN 17TIK 20RA

II. Pintxo Astea antolatu dute herriko ostatuek Aste Santurako

Pintxorik onena bozkatzan dutenen artean herriko produktuez osatutako saskia zozketatuko da

guztien artean herriko produktuez osatutako saski bat zozketatuko da apirilaren 21ean Ariztigain kanpinean, astelehen eguerdiko 12etan. Horrez gain, igandean, apirilak 20, haur jokoak izanen dira Ariztigain Kanpinean arratsaldeko 4:30etik aitzinera.

Joan den urtean izugarrizko arrakasta izan zuen ekimen honek eta aurten ere parte hartze-ko gonbidapena luzatu dute.

Plataforma eta eskorga jasotzaile ikastaroak antolatu ditu Udalak

Udalak bi ikastaro antolatu ditu. Lehenbizikoa, *Plataforma jasotzaileak modu seguruan erabili* izenekoa, 8 orduko ikastaro teoriko-praktikoa izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Atsedetik hartu gabe lanean segitzen dute Herrera anaiak

Jo eta su dabilta Herrera anaiak Caja Ruralek antolatzen dituen karreretan parte hartzen. Martxoaren 30ean Arguedasen izan zuten karrera. Enekok 6. postua lortu zuen eta Koldok berriz 2. amaitu zuen. Apirilaren 6an, Enekok Euskadiko Openeko lehen edizioan parte hartzeko aukera izan zuen 5. postua lortuz. Apirilaren 13an, berriz Tuterako lasterketan parte hartu dute.

Prezioa: 100 euro. Ikastaroa eginen da gutxieneko kopurua badago. Izen emate ordena kontuan hartuko da.

Bertze ikastaroa, *Es-korga (carretilla) jasotzaileak modu seguruan erabili* izenekoa, 25 orduko ikastaro teoriko-praktikoa izanen da. Prezioa: 100 euro. Ikastaroa eginen da gutxieneko kopurua badago. Izen emate ordena kontuan hartuko da.

Apirilaren 25a bitartean ematen ahal da izena udaletxean.

Igerilekurako soroak behar dira

Jada udaberria sartu gara eta udara ailegatzeko atarian pisiznak izanen ditugu mintzagai. 2014ko udako igerileku denboraldiko soroak behar dira Sunbillako igerilekuan. Horretarako apirilaren 4ko udal batzarrean erabaki zen igerilekuko ardura hartzeko lehiaketa irekia eginen dela ondorengo baldintzekin:

Eskaintzaren prezioa, gehienez 9.000 eurokoa izanen da, kontuan hartuz denboraldia ekainaren 15etik irailaren 15era bitartekoa izanen dela.

Igerilekuetan bi langile behar dira eta horietako batek derrigorrez soroa izan behar du desfibriladore erabiltzaile tituluarekin.

Eskaintzak aurkezteko epea maiatzaren 7an akituko da Herriko Etxean. Informazio gehiago ere bertan topatuko dute interesatuek.

Maider PETRIRENA

Aste Santuan Pintxo Astea eginen dute bigarrenenez Sunbillako ostatuek apirilaren 17tik 20ra. Aipatu ortzegunearrantsaldez bakarria izanen dela eta gainontzeko egunak, hau da, ortziraletik igandea bitarte, eguerdi eta arratsaldez eskainiko dira pintxoak Iturburu, Bustitz eta Ariztigainen. Pintxoak dastatu eta gustokoena bozkatzeko aukera izanen da. Bozketan parte hartzen duten

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☞ Langile autonomoak ☞ Nekazariak eta mendi langileak ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak ☞ Lan-Kontrabaturako laguntzak ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☞ Diru-laguntza ezberdinak ☞ Kontabilitateak ☞ IVA eta IRPF ☞ Errenta aitortpenak ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

ALTZURI

etxetresnak

%5

EKO
DESKONTUA

etxetresnetan

BERTSOLARITZA → 14-18 URTE ARTEKOA

Mikel Lasartek irabazi du Eskolarteko txapelketa

Maddalen Lopez lesakarra bigarren izan zen

TTIPI-TTAPA

Mikel Lasarte barañaindarrak hirugarren aldiz irabazi du 14 eta 18 urte bitarteko Nafarroako Eskolarteko Ber-

tsolari Txapelketa. Eskolartekoaren 28. edizioa apirilaren 4an jokatzen Iruñeko Kalekalde elkartean eta Maddalen Lopez lesakarra azpitxapeladun izan zen.

Zortzi bertsolari gaztek hartu zuten parte Eskolartekoan: Aina leregi (Barañain), Manex Mailharin (Berriozar), Sarai Robles (Barañain), Mikel Lasarte



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

14-18 urte artekoen finalean parte hartu zuten zortzi bertsolariak.

(Barañain), Jokin Pinatxo (Bera), Maddalen Lopez (Lesaka), Joanes Illarregi (Leitza) eta Xabat Illarregi (Leitza).

Azkenean, Lasartek jantzi zuen Nafarroako bertsolari gazteen txapela, eta Maddalen Lo-

pez lesakarra izan zen bigarren sailkatua. Biek ordezkatzeko dute Nafarroa ekainaren 21ean Orion jokatuko den Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan.

Alaitz Rekondok aurkezle lanak egin zituen,

eta Mikel Beaumont, Ekintza Landa eta Nerea Bruñok epaitu zuten saioa.

Saioaren ondotik, bertso-merendua izan zen, Julen Zelaieta eta Amaia Elizagoien bertsolariekin.

KANTU ZAHAR AFARIA

MENDIKO JATETXEAN (IBARDIN) | Apirilak 26. larunbata - 20:30

XABIER EUSKITZERI OMENALDIA

Plater bakoitzean
★ Kantu Zaharren liburu bat izanen dizue!!

Bertsolariek:
SUSTRAI COLINA
BENAT GAZTELUMENDI

Abestariek:
BANKAKO MENDITARRAK | JAIÑE OLAZABAL
ALBERTO ZUNZARREN, AITOR IBARRA eta
FRANCISCO SANTXOTENAren laguntzarekin

Izen-ematea:
948 630 302 / 670 365 011

mENDIKO
BARKERIKOAK · MENDIKOAK · MENDIKOAK

bigarren urtebetetzea

Antolatzailea: Angel Mariezkurrena

DONEZTEBE

GIZARTEA → OPORRALDIETAN EKINTZA EZBERDINAK EGITEKO

Ludoteka zerbitzua eskainiko dute Aste Santuan eta udan

3 eta 12 urte arteko neska-mutikoei zuzendua

TTIPI-TTAPA

3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako ludoteka zerbitzua eskainiko du Udalak Aste Santuan eta udako oporretan eskolako gimnasioan.

Aste Santuan apirilaren 22tik 25era eta udan ekainaren 23tik irailaren 5era, 09:00etatik 13:00etara eskainiko da zerbitzua.

Kuotei dagokienez, denboraldi osoko abonoa (Aste Santua eta uda) 180 eurokoa izanen da. Aste Santukoa 30 eurokoa izanen da eta udakoa bakarrik 150 eurokoa. Udan hilabete batez parte hartzeko aukera ere izanen da, 80 euroren truke eta hilabete erdiz, 40 euroren truke.

Deskontuak ere izanen dira: %25 merkeago famili bereko bigarren haurarentzat;



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Elkartasun denda ireki du Lagun Bidek

Elkartasun denda ireki du Bidelagun elkartearen enpresa berriak, Lagun Bide Zerbitzuak. Parrokia karrikako 18.ean, lehenagoko Rodri etxeko tresnak dendan ireki du asteleheneetik ortziralera, goizeko 9:30etik 13:30era. Denda honetan gauza aunitz aurki daitezke: Gizonezko, emakumezko eta haurren arropa, oinetakoak, toallak, jostailuak, platerak, mandireak, etxeko tresna txikiak...

%50a famili bereko haurgarren haurarentzat eta %20a famili ugariendako. Azken hau ezin izanen zaie bertze bi beharpenei gehitu.

Gai honekin loturik, Malerrekako Haurren Aisialdirako begiraleen zerrenda sortu nahi du

mankomunitateak, antolatuko diren prebentzio ekintzetan, haurretaz arduratuko den ludotekarako. Ez da titulobeharrik.

Apuntatzeko, Maleerrekako Mankomunitateko gizarte hezitzaileari (Iratiri), emaila igorri:

ssbdoneztebe@maleerrekainfolocal.org, idatzizaren gaia, izen-abizenak eta kurrikuluma

agertuz.

Apuntatzeko epea apirilaren 30n akrituko da.



Pertsonaia
Patxi OLAZAR

Martxoko erremontelari onena

Sagardoaren Txapelketan egindako lan bikaina medio, B multzoko erremontelarien artean onena izendatu dute Doneztebeko atzelaria. Joan den hilabetean jokatutako partida guztiak irabazi zituen Olazar-ek eta hortaz, 40 punturekin izan da sailkapen buru, Larrañaga eta Otaegiren aitzinetik. Aipatzekoa da A multzoko erremontelarien artean bigarren izan dela Etxeberria III. (37,6 puntu).

Ba al zenekien

Udalak zazpigarren urtez antolatu duela pintxo lehiaketa maiatzaren 1etik 4ra, ANAPEH eta Inurrieta upategiaren laguntzarekin

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

Gure Haragia
Nuestra Carne

GIZARTEA → HAINBAT EKITALDI IZAN DIRA MARTXO HONDARREAN ETA APIRIL HASIERAN

Elurrak xurituta eta erritmoz gainezka, hasi da udaberria

Afrikar dantzen ikastaroak, emakume bazkariak eta musika brasildarrak giroa berotu dute

Mattin LARRALDE

Udaberria elur kontuekin hasi genuen arren, herrian izan diren ekitaldien ondorioz giroa bero ibili da.

Martxoaren 29an izan ziren afrikar dantzen ikastaroak Kultur Etxean. Gorputza astinduaz, giro polita sortu zen eta zuzeneko musikaz gozatzeko aukera ere izan zen. Astebukaera berean emakume



UTZITAKO ARGAZKIA

Elurra urtuzeko moduko ekitaldiak izan dira udaberri hasiera honetan.

kuadrila batek bazkaria izan zuen. Aspalditik elkartzekoak zirenez, hauek ere giro onean eman zuten eguna.

Bertze aldetik, apirilaren 5ean musika brasildarra entzuteko aukera izan zen. Jairon eta Cassandra aritu ziren

musikari lanetan eta jarrera DJ Tororok emandaldia eskaini zuen. Kaiririña edateko aukera ere izan zen.

ESKUALDEA

Aisialdia eta Gastronomia Gida argitaratu du Ttipi-Ttapak

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bidasoa eta Xaretako Aisialdia eta Gastronomia Gida argitaratu berri du Ttipi-Ttapak. Bertan, inguru honetako 60 bat jatetxe, ostatu, komertzio eta aisialdirako enpresen eskaintzaren berri ematen da euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

Modu berean, herri baikoitzak eskaintzen dituen zerbitzuen berri ere ematen du, hala nola, frontoia, igerilekua, supermerkatua, gasolindegia, autobus zerbitzua, lo egiteko tokiak, turismo bulegoa, osasun etxea edo botikarik baden jakinaraziz. Baztan-Bidasoaldeko mapa bat ere badu. 6.000 ale argitaratu eta turistak ibiltzen diren tokietan banatu dira.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2014 UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ITUREN

GIZARTEA → OPORREN ATARIAN

Aste Santuko jende oldea hartzeko prest dago herria

Oporrak hartu aitzinetik Malerrekako Joko Topaketetan parte hartu zuten Pulunpako ikasleek

Arkaitz MINDEGIA

Ate joka ditugu Aste Santuko oporrak! Herria prest dago bertakoa eta kanpotik etorriko diren turista horiei egun eder batzuk pasazteko. Hainbat eta hainbat etxe rural badiira bertan, Abarun aterpetxea ere bai... Eguraldia lagun izanez gero kaleak, leku goxoak edo Mendaurjendez lepo izanen dira.

Pulunpako ikasleak joko topaketetan

Oporrak hartu baino lehen urteroko zitan ederki pasatu zuten Pulunpa eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek. Sunbillan apirilaren 15ean ospatu ziren joko topaketetan izan ziren, Malerrekako herrietako eskolek antolatutako topaketetan. Herriko ikasle, irakasle eta gurasoek gain Beintza-Labaien, Legasa, Sunbilla, Saldias eta Narbarteko ikasleak ere elkartu ziren.

Sein jubenilen kategorian ere bikain

Jubenilen kategoriarri maila hartzen ari zaio Javier Sein. Denboraldia hasi besterik ez da egin eta sailkapeneko lehen hiru postuetan dabil herriko txirrindularia. Martxoaren 30ean Arguedasen jokaturiko Caja Rural Openeko karreran irabazle izan zen karrera gogor eta estu baten ondotik, sprinean garaipena lortuta. Horren ondorioz, sailkapen orokorrean bigarren postua eskuratu du.

Bestalde Euskadiko Openeko lehenengo karreran bigarren geratu zen Legution.

Euskal Herriko Itzulia

54. Euskal Herriko itzulia herritik pasatu zen. Hain zuzen ere bigarren etapak bisitatu zuen eskualdea, Ordizia eta Dantzarinea artekoak. Urteak zeramatzan itzulia bertatik pasa gabe eta plazerra izan zen Mikel Nieve, Alberto Contador edo Alejandro Valverde bezalako txirrindulari haundiak herriko kaleetatik pasatzen ikustea.

Gure esku dago

Apirilaren 5an Donostebeko zineman aurkeztu zen Malerrekako Gure esku dago batzor-



UTZITAKO ARGAZIAK

Pulunpako hiru talde haur eta gaztetxoek kantu jaialdian

Aitzineko alean aipatu genuen bezala, Pulunpa eskolako hiru taldek parte hartu zuten Beran egin zen haur eta gaztetxoek kantu jaialdiko saioan. Joaldun taldeak *Euskararen koloreak* abestu zuen; Mariatxi taldeak *Eskurik esku* eta Urretxindor taldeak *Aberriaren mugak*. Giro ederrean ibili ziren.

dea. Aurkezpenaren ondoren, Malerrekako grabaturiko bideoa aurkeztu zuten. Hainbat eta hainbat herritarrek parte hartu dute bideo honetan: Jabier Bereau joaldunak, Iker bertso-lari gazteak, Aurtizko Eneritz, Bidane eta Arkaitz gazteak, alkateak... Bideoa sarean zintzilikatu dute. Irudietan agertzen direnen eta kamera atzeko lana egin dutenen emaitza ikusgai duzue!!!

LARRALDEA
eta
LINDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa - LEKAROZ | 948 452121 - 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

KULTURA → ORONOZ-MUGAIRIN IZAN ZIREN

Zubietarrak ere Sahararen alde

Bestaz gozatu eta musika ukitua emanaz

Fermin ETXEKOLONEA

Herritar aunitzek hartu zuen parte Saharaztanean antolatu eta Oronoz-Mugairin ospatu zen Sahararen aldeko egunean. Elkartean sarturik daude Fausti Juanikorena, Juainas Paul, Ines Gereka eta Iñaki Sanchez. Joxe Mari Mitxelena eta Olaia Loiarde musikari lanetan aritu ziren eta Julieta Itoz rap kantari.

Kantautore gaua

Herriko Ostatuan kantautore gaua antolatu dute hilaren 26an, 21.30ean hasita: Amarela, Edu Libra eta Cere Vera ariko dira kantari.

Ttikienak kantari

Iturengo eskolakoekin batera, Haur Kantari Jaialdian parte hartu zuten Zubietako ikasleek ere. Arantxa Diez izan zuten laguntzaile gisara.

Malerrekako Eguna prestatzen

Malerreka eguna anto-



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Doneztebe Futbol Taldeko zubietarrak

Doneztebe Futbol Taldea herriz herri ibiltzen da erakustaldiak eginez. Martxoaren 30ean Zubietan izan ziren eta herriko futbolari gaztetxoak ere aritu ziren. Xaitxa polita paratu zuten plazan. Ekaitz Loiarde, Lander Indakoetxea, Mattin Agesta, Jonan Fuentes eta Zaira Bendoiro ageri dira goiko argazkian.

latzen hasiak dira eta egin beharreko lanak eta parte hartzaileak zehazten ari dira. Herritik partaidetza handia iza-

nen da: joaldunak, Muxikoak, paella egileak, artisauak eta talo egileak... Gainera Migel Arregiri Doneztebeko ar-

marriaren egurrezko taila egitea eskatu diote antolatzaileek eta Migel, fin fin ari da agintutako lana betetzen.

GIZARTEA → APIRILAREN 5EAN

Malerreka kantuz bigarrenez egin da Oizen

Berrogei bat lagun bildu ziren kantari

Pilar URROZ

Apirilaren 5ean antolatu zen Oizen bigarren aldiz Malerreka kantuz. Eguerdian berrogei bat lagun bildu ziren plazan, bertakoak nahiz ingurukoak, eta hasieran euri-tanta batzuk erori arren, ekitaldi osoan eguzkia "kantu-lagun" izan zuten. Plazan hainbat kantu abestu ondoren, kaleetan geldialdixo batzuk eginez, kantu zaharrez eta herrikoiez alaitu zuten herria. Kantu-jiraren bukaera Herriko Ostatuan egin zuten, eta bertan



ARGAZKIA: ALBERTO SAN MIGUEL

Malerreka kantari, Oizko plazan.

zizka-mizka goxo batzuk izan zituzten sari.

Zabor eta hondakinen kudeaketa

Oizko udaletxean zabor-hondakinen kudeaketarako bilkura informatiboa izan zen apiri-

laren 3an. Herritar batzuk hurbildu ziren, eta informazioaz gain, konpostagailuen eskaera egin ahal izan zuten. Abisatuko den hurrengo bilkura batean konpostea nola egin erakutsiko zaie herritarrei eta orduan banatuko dira konpostagailu horiek.

RENAULT **SANTESTEBAN TAILERRAK**
Leizakako errep. DONEZTEBE | T. 948 450 282
F. 948 450 857 | doneztebellred.renault.es

 11.950€ LAGUNA III EXPRESSION TOM-TOM DCI 130 CV 2010 urtekoa - 70.000 km Nabegatzailea, klimatizatzailea, 6 marra...	 16.500€ KM 0 MEGANE III GT STYLE DCI 110 CV 2014ko apirilaren matrikulatua Klimatizatzailea, aire gutxi, bluetooth integratua...
 11.500€ SCENIC III EMOTION DCI 95 CV 2011 urtekoa - 70.000 km Klimatizatzailea, 6 marra, bluetooth integratua...	 10.500€ MEGANE III TOM-TOM DCI 105 CV 2009 urtekoa - 66.000 km Nabegatzailea, aire gutxi, 6 marra...
 4.500€-4.900€ KANGOO ITXIA DCI 60 CV 2008 urtekoa - 53.000 km Aire gutxi, goiko aldean tranpa	 7.900€ CLIO III BUSINESS DCI 70 CV 2009 urtekoa - 30.700 km Aire gutxi

LANA

GIZARTEA → MARTXOKO DATUAK

Langabetuen erditsuak ez du prestaziorik kobratzen

Eskualdeko 1.446 lagun zeuden lanik gabe martxo hondarrean

TTIPI-TTAPA

1.446 lagun zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak martxo hondarrean, otsailean baino 16 guttiago. Nafarroa osoan %1,24 jautsi da langabezia eta eskualdean zertxobait guttiago, %1,09. Kopuru horretatik, dagoeneko 707k (%48,9) ez dute langa-

bezi-prestaziorik kobratzen.

Martxoan 407 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik 65 bakarrik mugagabeak.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 657 lagun daude langabezia, otsailean baino 7 guttiago. Adin tarte horretako emakumeen artean 635 langabetu daude, otsailean baino 10 guttiago. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean, aldiz, 2 lagun gehiago daude langa-

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2014ko martxo

Herria	Populazioa 2013	Lanik gabe guztira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	120	7	4	3
ARANTZA	634	23	12	11
ARESO	271	11	4	7
BAZTAN	7.974	363	175	188
BEINTZA-LABAIEN	240	10	6	4
BERA	3.829	200	90	110
BERTIZARANA	614	50	34	16
DONAMARIA	437	24	12	12
DONEZTEBE	1.681	133	74	59
ELGORRIAGA	225	15	10	5
ERATSUN	159	14	8	6
ETXALAR	829	43	17	26
EZKURRA	151	7	1	6
GOIZUETA	763	46	25	21
IGANTZI	627	28	13	15
ITUREN	513	34	11	23
LEITZA	2.889	165	78	87
LESAKA	2.784	156	83	73
OIZ	144	5	2	3
SALDIAS	114	13	5	8
SUNBILLA	627	53	23	30
URDAZUBI	380	9	4	5
URROZ	181	5	2	3
ZUBIETA	316	21	9	12
ZUGARRAMURDI	220	11	5	6
Denetara	26.722	1.446	(%48,9) 707	(%51,1) 739

bezian, 99 langabetu, eta adin tarte horretako emakumeen artean otsailean baino emakume bat guttiago dago lanik gabe, 55 emakume denera.

Zerbitzuen arloak segitzen du langabe ge-

hien izaten, baina jautsierarik nabarmenena izan duen sektorea izan da, 972tik 946 langabete pasatuz, 26 guttiago. Industria arloan, aldiz, 4 langabetu gehiago daude, 245 denera. Eraikuntzan 4 langabe-

tu guttiago daude, 159. Nekazaritzan bi lagun gehiago daude langabezia, 24 lagun, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean 72 lagun daude langabezia, otsailean baino 8 langabe gehiago.

GIZARTEA → ESPAINIAKO GOBERNUA PRESTATZEN ARI DA

Mutuen erreforma salatu du LABek Beran

Apirilaren 3an egindako elkarretaratzean mutua kontratuak errezituzten

TTIPI-TTAPA

LAB sindikatuak apirilaren 3an Berako Mutuavener mutuen aitzinean egindako kontzentrazioan mutua kon-

tratuak errezituen, etortzekoa den mutuen erreforma salatzeko eta izanen dituen ondorioak azaltzeko.

PPren gobernu prestatzen ari den dekretuaren arabera, erreforma berriak, kontingentzia profesionaletatik aparte, kontingentzia komunak eta eritasun jarraipena egiteko aukera emanen die Mutuei. «Azken finean Enpresarien asoziazio-

ak diren mutua hauen helburua gure osasunarekin negoziarioa egitea da eta praktikan sendatu baino, ahalik eta azkarrenen langilea lanera itzultzea dute helburu, horretarako presioa eginez langileei», aipatu zuen LAB sindikatuak.

ERREFORMA GELDITZEA ESKATU DUTE

Hori dela eta LABek erreforma hau gelditze-



UTZITAKO ARGAZKIAK

LAB sindikatuko ordezkariak apirilaren 3an Beran egin zuten agerraldian.

ko eskatu eta honek ekarriko duen osasunaren pribatizazioa salatu zuen eta alternatibak planteatuko ditu lantegietan. Hain zuzen, «kalitateko osasun zerbitzu publiko eta eragin-

kor bat, eta horren baitan enpresek kontingentzia komun eta profesionalak Seguritate Sozialarekin kontratazea» da LABek proposatzen duen alternatiba.

OSPAKIZUNAK → 2.615 BAZKIDE DENERA

47 bazkide berri ditu Arkupeak Elkartekak

Elkartearen boletin berria prest dago

Fernando ETXEBERRIA

Apirilaren 3an egin zuten Arkupeak Elkarteko Zuzendaritzako bilera eta bertan bi albiste garrantzitsu jaso genituen. Batetik, diru kontuei dagokiena, hamaiaka oztopo izan diren arren, 2013ko balantzea positiboa izan baita. 1.291,08 euro ditu el-

karteak, CAN eta Nafarroako Gobernuaren bidez lortzen ziren diru laguntzak nabarmen murriztu diren arren.

Bestetik, 47 bazkide berrik eman dute izena elkartean eta dagoeneko 2.615 bazkide ditu Arkupeak Elkartekak.

Boletin berria maiatzean

Maiatz bukaeran kaleratuko da boletin berria eta bertan jasoko da datozen hilabeetarako



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Valentzia aldean ibili dira berriki Arkupeak Elkartekoak.

antolatu diren ekitaldi eta bidaiak guztien gaineko informazioa. Bidaiak luzean gaineoak, hitzaldiak, ikastaroak... datorren aldizkarian aurreratuko dizkizuegu xehetasun gehiago.

Dena den, boletin berria esku artean eduki

aurretik ere apirilean zehar, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hurrengo hitzordua apirilaren 10ean izanen dute Arkupeakeko kideek, urteroko ohitura mantenduz Donezteben egitekoa den gimnasia egunean. Kirol pixka bat egi-

teko aitzakian, bestaroko tartea izanen dute.

Apirilaren 23an berri, Ordiziako artzain egunera antolatu dute bidaiak. Goiza bertan pasatuz, Azpeitiko Kirurri jatetxean bazkaldu eta dantzaldia izanen da 19:00ak arte.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Eskualdeko txokoak ezagutuz

Euriak ez zuen izutu 12 laguneko koadrila eta gidari lanetan aritu zen Xantiri segika, Donezteben barna mendi itzulia osatu zuten martxoaren 26an. Dena den, bideko zenbait zati hondatuta zeudenez hasieran burutan zuten ibilbidea moldatu zuten. Oiz, Donamaria, Gaztelu eta Legasan barna bueltaxka osatu beharrean, Ituren aldera jo eta handik Oizko kanposantura jeitsi ziren, Donamarian barna Doneztebera iristeko. Santa Maria jatetxean ongi irabazitako bazkaria egin zuten gero. Ibilaldian kilo bat galdu eta bazkarian pare bat irabazi omen zituzten. Eskualdeko herrietan barna mendi itzuliak eginez segitzeko asmoa dute eta datorren irteera antolatua dute dagoeneko. Leitzan barna egingen dute ibilaldia apirilaren 24an, herriko plazatik abiatu eta Santa Kruz ermitara igoko dira. Handik, haize errotetara, Kornietara eta Erasote auzora jeitsiko dira gero, Plazaola bideari segika herrira itzultzeko. Bazkaria, Arakindegian egingen dute.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Aginaga sagardotegira urteroko bisita

Martxoaren 13an 170 elkartekidek urteroko bisita egin zuten Aginaga sagardotegira. Eguraldi bikaina lagun izan zuten eta sagardotegira joan aurretik Donostian zehar ibilaldi polita egiteko aukera ere izan zuten. Aquariuma bisitatu zuten batzuk, beste batzuk erosketak egiteko aprobetxatu zuten eta zenbait alde zaharrean barna egin zuten bueltaxka. Bazkaria bikaina eta oparoa izan zen eta dantzaldian primeran pasatu zuten. Hori bai, protestarako tartea ere izan zen, dantzaldia ez zutelako ordu erdi gehiago luzatu. Antolatzaileek kontuan izanen dute hurrengo txandetarako.

ESKUALDEA

GIZARTEA → MANKOMUNITATEKO KIDE DIREN UDALERRIKIN ELKARLANEAN EGIN DU UEMAK

Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiatu da

Eskuorriak banatu dira herriz herri

TTIPI-TTAPA

UEMAK, Mankomunitateko kide diren Nafarroako udalekin elkarlanean, errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina jarri du abian. Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka, Baztan, Basaburua, Arantzeta, Areso, Goizueta, Larraun, Leitza, Etxarri-Aranatz eta Arbizuko udalerritan, milaka eskuorri banatu dira etxez-etxe kanpainaren berri emateko. Alde batean errenta euskaraz egin ahal izateko dituzuen bideen berri ematen dute, eta atzealdean, joan den urtean jasotako datuak ageri dira taula batean. Nafarroan UEMAKo herrietan egin ziren errenta aitortpen guztietatik zenbat izan ziren euskaraz erakusten du taulak. Gure eskualdeari begiratuta datuak, orohar, baxuak dira: Bortzirietan jasotako datu-



UTZITAKO ARGAZKIA

UEMAKo herrietan milaka eskuorri banatu dira.

rik altuena Etxalarkoa da, %3,73koa, Baztanen %2,52a eta Leitzaldean %17a. Deigarriak dira datuak, iaz euskaraz egitearen aukera herritar gutxi batzuk hautatu zuten seinale. Aurten, portzentaje horiek igotzeko asmoz, errenta aitortpena euskaraz egitea animatzen zaituztete UEMAK eta baita zuen udalek ere.

Azken batean, kanpainaren bitartez, he-

rritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezen bultzatu nahi da. Bide horretan, errenta aitortpena euskaraz eginda euskarari bide berriak irekitzeaz gain, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatu nahi da. Hizkuntzaren normalizazioa lortzeko euskara eremu guztietara hedatu behar da, eta horretarako, garrantzitsua da herrita-

reek euskaraz osotasunean bizitzeko hautua egitea. Udalerri euskaldunetako herritarrok eredu eta aitzindariak izan gaitzke horretan.

2014 urteari dagokion errentaren gaineko aitortpena egiteko kanpainan, zergadunek hainbat bide dituzte euskaraz egiteko. Horretarako, lehen urrartetik zein hizkuntzatan egin nahi duten aukeratu behako dute.

BERA

Baratzegintza ekologikoan lehen urratsak ikastaroa

TTIPI-TTAPA

Baratzegintza ekologikoan lehen urratsak izeneko ikastaroa antolatu du Berako Udalak. Apirilaren 24ean eta maiatzaren 8an, ortzegunetan, arratsaldeko 6etatik 9etara Beralandetan eskainiko du Mattenea baserriko Josune Zamora irakasleak. Ikastaroa euskaraz izanen da eta apunteak gaztelaniaz emanen dira. Izen ematea apirilaren 16a baino lehen egin behar da, 012 telefonora deituz. Prezioa 10 eurokoa izanen da. Gehenez ere 20 lagunentzako tokia dago eta lehentasuna udal baratzegintza dutenek eta beratarrek izanen dute. Bertzeak bertze, zer da baratzegintza ekologikoa, lurra lantzeko lanabesak, ongarriketara, ureztapena, belar txarrak kontrolatzea, txandakatzea eta elkartzeak, baratzegintza osasuna, erite eta landatze egutegia eta labore desberdinen maneia landuko dituzte.

sarobe
gaiztegia okindgia
C/Jo eztegiara 25 bajo
31780 Bera (Navarra) T. 948 630 899
www.sarobe.net

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Jaso lute & caro
Tfno/Fax: 948 630 018 Kantinberri 12 • BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zelai • BERA • 948 630 052

MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak
T. (0034) 636 617 450

Karsuk
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak
Karlos Pombar Sainz
C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

SALDIAS

GIZARTEA → FRONTOIAN SARTZEKO ERRAZTASUNAK

Aldapa egin diote Aldapari

Poliki dago orain fronton barrenera gauzak sartzeko edo gurpil aukietan daudenak jausteko

Orain itxaxurak konponduak baleude!

Sagardotegira

Martxoan, sagardotegiko buelta eginak dira Labaingo eta Saldisko zenbait gazte, Lasarteko Soilaenera. Handik gero, batzuk etxera eta besteak Hernanira.

Basurde jatea

Apirilaren 5ean, Mikelengo Mielek basurdea ekarri eta otordu ederra egin zuten zenbait lagunek Tabernean.

'Joxean's hileben'

Maiatzaren 16an, 'Joxe-



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Oteak eta denak erre dira, baina belarra nola helduki.

Markel LIZASOAIN

Atzeko koadroetan, mailak kendu eta aldapa bat paratu diote frontonari. Bateon batek trastakeriaren bat egin bazuen ere, majo gelditu da. Hemendik goiti, kantxara baita autoak ere sartzan ahalko dira.

an's hileben' filma proiektatuko dute Otxontan. Interneten dago trailerra, ikus nahi duenak.

Hilberriak

Mekolengo Petra, beretaz urroztarra, eta

Olasoko Ramon Luis, Irunen bizitzen zena eta Martin zenaren anaia hil dira. Goian beude.

Mendiari su eman diote

Martxoko hilean, Abitako palda kizkali zen.

Norbaitek ere su eman ageri du. Zerbait esan behar eta, errepidearen gaineko aldeko ezpondan zortziren bat tokitatik emana du. Jendea eta suhitzailak bizpahiru egunez ibili omen ziren sua itzaltzeko.

DONAMARIA

GIZARTEA → BAZKALONDOAN HERNANIKO OSTATUETAN BESTA EGIN ZUTEN

Giro ederrean ibili ziren gazteak sagardotegian

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Giro ederrean pasatu zuten Donamariako gazteek sagardotegira egindako irteeran. Bazkari bikaina egin ondoren, besta ederra egin zuten Hernaniko ostatueta barrera.

Bildots hirukiak Porotxenean

Jon Lasaga Donamariarrak erakusten duen moduan, Porotxeneko ardi batek, hiru bildots eduki zituen.



ARGAZKIA: ITXASNE LASAGAK UTZIA

Ardi batek hiru bildots izan zituen Porotxenean.



ARGAZKIAK: GARBINE JORAJURIAK UTZIAK

Giro bikaina izan zuten gazteek Hernani aldean.

LEITZA

GIZARTEA → APIRILAREN 7AN EGINDAKO BATZARREAN

Arantxa Iparragirrek hartu du udaleko alkate-makila



ARGAZKIA: KRISTINA URRUTIA

Herrian alkate kargua hartzen duen lehen emakumea da

JM BARRIOLA

Alkate berria izendatzeko batzarra egin zuten apirilaren 7an Udaletxean. Udaleko zinegotzietz gain, herritar ugari bildu zen aretoan

Apirilaren 7ko batzarrean, Iparragirre alkate izendatu zuten unea.

eta bertan, Bilduko zinegotzi guztien aldeko bozekin, Arantxa Iparragirre izendatu zuten alkate. Bertaratutakoen babes eta txalo zaparrada artean hartu zuen kargua. Bere lehendabiziko hitzak Oier Eizmendi, orain arte alkatea izandakoari, eskai-

ni zizkion eta urte hauetan herriagatik egindako lana eskertu nahi izan zion. Herritarrei ere eskainitako babes eta laguntzagatik eskerrak eman zizkien. Arrazoi pertsonalak medio utzi zuen kargua Oier Eizmendik, baina alkate berriari babes osoa es-

kaini eta bere laguntza emateko prest agertu da. Arantxak, Bilduren talde lana ere azpimarratu nahi izan zuen Udala kudeatzeko moduagatik, «ez baitu modu presidentzialean egiten». Xabier Zabalok zinegotzi kargua hartuko du laister.

GIZARTEA

Atekabeltzeko ekimen arrakastatsuak

JM BARRIOLA

Apirileko lehen astean Atekabeltz Herrigunearen inguruan zenbait ekitaldi burutu ziren. Gune honen helburua herriko eragile ezberdinei, batez ere biltzeko egoitzarik ez dutenei, elkartzeko toki bat eskaintzea da. Kulturgunea izatea nahiko lukete, herritarrek herriaren alde lan egiteko gune, auzolana sustatuz. Atekabeltz gunea eta proiektua zabaldu eta ezagutarazteko asmoz antolatu zen festa. Hitzaldiak, kontzertuak, umeentzako ekitaldiak... izan ziren. Partehartze handia izan dela aipatu dute antolatzaileek, jende ugari eta anitza erakartzea lortu dutelako.



ARGAZKIA: NAHIKARI URIARTE

'Lan aukerak zabalduz' proiektuaren amaierako ikastaroa

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte zerbitzuen eta Cederna Garalurren eskutik antolatutako "Lan aukerak zabalduz" proiektua amaitzean da. Otsailean hasi ziren langabetuen topaketekin eta geroztik autoenplegua sustatzeko eta honen inguruko beldurrak kentzeko, bi ikastaro ere eskaini dituzte. Orain bukaera borobila emateko Lekunberrin ikastaroa antolatu dute: "Marketina on line: blogak, web 2.0 eta sare sozialak" izenburupean. Maiatzean, asteazkenero Lekunberriko eskolako ordenagailu gelan bilduko gara. Izena emateko kontaktuan jarri Cederna Garalur edo Gizarte Zerbitzuarekin.



ARGAZKIA: MENDIALDEKO MANKOMUNITATEA

Auzo-konpostagailuetako lehen konposta bildu dute

Apirilaren 1ean banatu zuten auzo-konpostagailuetan sortutako lehen konpost ondua. Mendialdea Mankomunitateak hiru gune jarri zituen martxan, guztira 65 familiak hartzen dute parte eta 600 kilo inguru ondakinetik 325 kilo konpost lortu dira. Hori galbaituta 270 kilo ongari atera dituzte 21 familien artean banatzeko. Oraingo balorazio positiboa egin dute eta ekimena zabalteko maitzaren 10ean konpostaren inguruko pesta antolatu dute. Ordurako 1000-1200 kilo konpost izatea aurreikusten dute.

FLASH

Energia berriztagarriak bultzatzeko

Goieneko energia kontsumitzaileen kooperatibako kide egin da Leitza Udalak. Goienekoen energia berriztagarriak bultzatu eta Euskal Herriaren burujabetasun energetikoa lortzea du xede. Gaur egun energia lortzeko iturri asko dauden arren, energia iturri sostengarri eta naturalago baten alde egiten du kooperatibak, horretarako energia berriztagarria erosi eta bere bazkideen artean banatzen du. Hitzaldiak eta tailerrak antolatzen dituzte asmoa dute orain, herritarrek gaiaren inguruan dituzten kezak argitzeko.

GIZARTEA → GALDEKETAREN EMAITZAK

Auzolanaren inguruko galdeketan ezezkoa nagusitu da

65 herritarrek bozkatu zuten alde eta 107k kontra

Juana Mari SAIZAR

Udalak auzolana berriaz ere indarrean jartzeko proposamena egin zuen berriki eta erabakia herritar guztien artean hartzeko asmotan, etxez etxeko kontsulta egin du. Auzolana berriaz jartzearen alde edo kontra zeuden galdeztzen zitzairen herritarrei eta apirilaren hasieran iritzi guztiak jaso zituzten. Kontaketa egin ondoren, herritarren gehiengoak Udalak egingadako proposamenarekin ez duela bat egiten ikusi da. 107 herritarrek

bozkatu baitzuten kontra eta 65k alde.

Pake-Tokin zuzendaritza berria

Pake-toki elkartearen zuzendaritza taldea berriro dute eta lehen aldiz emakume bat izendatu dute lehendakari, Josepi Marzol hain zuzen ere. Egia esan ez dira urte asko emakumeek elkarteko bazkide izateko aukera lortu zutela, eta oraingoan lehendakari izatera ere iritsi dira.

Emakume afarirako izen ematea

Urteroko ohiturarekin segiz, emakumeen afaria eginen da Pake Toki elkartearen apirilaren 19an. Izen emateko ze-

rrenda jarria dago dagoeneko.

Ttikienak igerian ikasiz

Eskolako umeak multikirolak bukatu dituzte eta orain igeriketa ikastaroan hasi dira Lekunberriko igerilekuan. Guraso Elkartean antolatu du eta astean bitan joaten dira, astelehenetan eta ostiraletan. Ekintza hau ekaina arte izango da, eta ondoren, udan, piszinetan eta hondartzetan ederki ibiltzeko moduan izango ditugu txikiak.

Mediku euskalduna eskatuz

"Nik mediku euskalduna nahi dut" kanpainan egin da eskualdean.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Pake Tokiko mus txapelketaren finala apirilaren 26an

Azken hilabeteetan mus txapelketako kanporaketak jokatu ondotik, finalaren ordua iritsi da. Apirilaren 26an jokatu da eta ohiturarekin segiz, afari bikaina ere egingo dute egun berean. Migel Mari Begiristain eta Migel Zabaletak jantzi zuten iazko txapela, ea aurtengoa nork eramaten duen!

Bideo bat grabatu, komunikabideetan elkarriketarako eta iritzi artikulak argitaratu eta eskuorriak banatu dira etxeetan. Areson ere landu da gaia eta gurasoek pediatria euskal-

duna izan dadin eskaerak sinatu dituzte. Oso gustora daude antolatzaileak egindako kanpainarekin, orain lanak fruiturik ematen ote duen ikustea falta da.



Ba al zenekien

UEMAko Nafarroako udalerrien artean Areso dela errenta aitortpena euskaraz gehien egiten duen udalerrria. %17k egin zuen iaz euskaraz, ea aurten datua mantendu edo gorantz doan!

NAFARROA

IRAKASKUNTZA → FINANTZIATZEARI UTZI DIO

Gobernuak bizkarra eman dio bertsolaritzaren irakaskuntzari

1.434 ikaslek lantzen dute bertsolaritza

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Bertsozale Elkartek jakinarazi

zi duenez Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamenduak *Bertsolaritza irakaskuntza* programa finantzatzeari utzi dio 2013ko irailetik. 1997an hasi ziren Nafarroako D ereduko ikastetxe publikoetan

bertsolaritza lantzen, azken urteotan ordea traba eta murrizketak ugaritu dira, azkena finantziariozkoa. Gainera, gogora ekarri dute 2011n *Bertsolaritza irakaskuntza* programa emateko hiru urterako



kontratu sinatu zuela Hezkuntza Departamenduarekin, baina Departamenduak urtebete beranduago bertan behera utzi zuela sinatutako kontratua. Horren aurrean, Alaitz Rekondo Nafarroako Ber-

tsozale Elkarteko lehendakariak, Hezkuntza Departamenduari bere konpromisoak bete ditzala eskatu dio eta «*Bertsolaritza irakaskuntza*» programa modu duin eta iraunkorrez finantzatu dezala.

GOIZUETA



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Ganbara bete zuten herritarrek informazio bileran.

GIZARTEA → HERRILURREN INGURUKO INFORMAZIOA

Iralekuen gaiak herritarren jakin-mina eta interesa piztu du

Jendetza bildu zen hilaren 4ko bileran

TTIPI-TTAPA

Iralekuen inguruko bilera garrantzitsua deitua zuen apirilaren 4an Udalak. Eta gaiak herritarren interesa eta jakin-mina pizten duela bistan dago, Herriko Etxeko ganbara jendez gainezka ageri baitzen. Herrilurren inguruko in-

formazioa banatu eta herritarren galderei erantzun zitzaion. Ondotik, herri ondasunen gaineko aprobetxamenduetako eskubideak eskrituratuak dituzten partikularrei edo hauen oinordekoei orri bat banatu zitzaion, bakoitzarekin halako hitzarmen moduko bat sinatu nahi baita. Orri hori sinatzerakoan, udalean martxoaren 18an behin behinekoz onartutako



ARGAZKIAK: IGOR ELIZEGI

Pilota txapelketa eta barrikotea presoaren alde

Pilotakadaz pilotakada sakabanaketaren aurka ekimenaren baitan pilota gozoaren txapelketa antolatu zen apirilaren 5ean. Bederatzi bikotek hartu zuten parte eta txapelketaren irabazleak Jon Narbarte eta Ekaitz Narbarte izan ziren. Ondoren, presoaren aldeko barrikotea izan zen Gaztetxean. 100 lagun joan ziren afaltzera eta Olaizola eta Larregaineko sagardoa dastatu zuten.

herri ondasunak berreskuratzeari buruzko transakzio hitzarmenaren oinarri orokorrekin adostasuna aitortzen dute herrilurren erabiltzaileek.

Baratzegintza ekologikoaren ikastaroa

Baratzegintza ekologikoaren ikastaroa hasi zen apirilaren 4an.

Beste bost larunbatez baratzea modu ekologikoan nola landu ikasten ariko dira izena eman duten hemezortzi lagunak, 18 orduko ikastaroa osatu arte.

BERTIZ

TURISMOA → HIRUAK BAT LANDA ETXE ELKARTETIK

Bisitariak erakartzeko proposamenak egin dituzte

Deskontu bonoak eta mugikorrerako aplikazio berria aurkeztu dituzte

TTIPI-TTAPA

Hiruak Bat Landa Etxe Elkarteak bisitariak erakartzeko proposamen berriak aurkeztu zituzten apirilaren 10ean Bertiz Turismo Partuzergoaren egoitzan. Mari Joxe Iparragirre, Hiruak Bat elkartearen lehendakaria eta Ruben Garate, Bertiz jatetxe elkartearen lehendakaria, alde batetik, Baztan-Bidasoko jatetxe egutegiaren mugikorrerako aplikazio berria aurkeztu zuten. Aplikazio hone-

kin, gure inguruko jatetxeen orduetegiak eskura izanen ditugu sakelako telefonoan. Bertze aldetik, Baztan-Bidasoa bisitatzeko landa etxeetan eskainiko dituzten deskontu bonoen berri ere eman zuten. Bezeroek, eskualdeko leku turistikoak merkeago ikusteko aukera izanen dute.

GIZARTEA → MAIATZAREN 17AN

Erabakitzeke eskubidearen alde lip-duba grabatuko da Elizondon

Apirilaren 11n egin zen Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena

TTIPI-TTAPA

Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena egin zuten apirilaren 11n, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean.

Gure Esku Dago ekimenak antolatuta, heldu den ekainaren 8an erabakitzeke eskubidearen alde Durango eta Iruñea artean, milaka lagunek osatutako 123 kilometroko giza kate erraldoia osatu nahi da. Giza kate hau antolatzeke, Euskal Herriko herri eta auzoetan lantaldeak osatu dira. Baztanen ere, taldetxo bat ari da lanean, ekainaren 8ra begira, ekimen hau dinamizatzeko asmoz.

Giza katea arrakastatsua izateko helburua lortzeko bidean, Baztango Gure Esku Dago lantaldeak hainbat ekimen antolatu ditu egunotan. Errate baterako, Baztango hainbat herritan *Gazta Zati Bat* izeneko dokumentala proiektatzen ari dira. Dokumental hau Goierrin egina da eta Eskozia eta Euskal herria hartzen ditu ardatz, erabakitzeke eskubidearen aldeko aldarrikapenarekin. Erratzu, Arraioz eta Elizondon eskainitako emanaldien ondotik, Amaiurren apirilaren 17an arratsaldeko 7etan; Anizen apirilaren



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Saharako bigarren elkartasun eguna arrakastatsua Oronozen

Sahararekiko elkartasun eguna antolatu du bigarren urtez Saharaztan taldeak, Baztango Udalaren laguntzarekin. Martxoaren 29an egin zen Oronoz-Mugairin eta egun osoan giro bikaina egin zen. Elkartasun ufadarekin aunitzek egin zuten bat eta horrek, *Oporrak Bakean* ekimenari bultzada emanen dio, Elkartasun Egunean bildutako dirua urtero Saharaztanek antolatzen duen ekimen horretara bideratuko delako. Goizeko kalejiraren ondotik, haimaz hornitutako frontoian egin ziren harrera eta ekitaldi guziak. Eguerdian, Sahara okupatuari buruzko solasaldia eskaini zuten Badadi Benamar eta Mohamed Gailanik, Fronte Polisarioko ordezkariak. Bitartean, umeek bere txokoan puzgarriekin jolas-teko aukera izan zuten. Bazkariaren ondotik, musika eta haurrentzako marrazki tailerrak izan ziren eta arrats partean kontzertuak. Antolatzaileek bestaren balorazio arras baikorra egin dute.

24ean arratsaldeko 7etan eta Arizkunen apirilaren 25ean ilunabarreko 9:30ean eskainiko da.

LIP-DUBA GRABATU NAHI DUTE MAIATZAREN 17AN

Bertzalde, jendearen partehartzea sustatzeko asmoz, heldu den maiatzaren 17an Elizondon Gure Esku Dago Eguna antolatu nahi dute, eta bertze gauzen artean, lip dub bat grabatu nahi dute eta egun horretarako gonbidapena luzatu dute. Norbanakoez eta Baztango eragile desberdinek parte hartuko dute lip dubaren grabazioan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Berroetarrak sagardotegian

Martxoaren 28an, Berroetako lagun talde bat Hernanira joan zen, Elutxeta sagardotegira. Giro ederrean pasa zuten eguna, eta ohitura zaharrak mantenduz, trikitixa, pandero, akordeoi, kantu zein dantzak etziren falta izan. Kupel andana bat usturen ondoren, bueltatu ziren Berroetara.

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna ospatuko dute apirileko azken igandean

TTIPI-TTAPA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, apirileko hondarreko igandean ospatuko dute Baigorri Nafarroaren Eguna, hilaren 27an. Basaizea Kultur Elkarteak antolatuta, ez da animaziorik faltako. Egun osoan karrikak alaitzen dantzariak, bertsolariak eta musikariak ariko dira. Baina ekitaldi gehiago ere izanen dira Euskal Herri guzitik etorritako milaka lagunenez bilgune bilakatuko den bestan. 08:00etan askaria eskainiko du Baigorriko ikastolak eta goiz osoan merkatua izanen da plazan. 11:00etatik aitzinera desfilea hasiko da, eta txalapartariak, bertsolariak, joaldunak, erraldoiek, dantzariak, gaiteroak eta trikitilariak, Mutiko alaiak eta Karmeleren irrintziak hartuko dute lekukoa. Basaizeak ere orduan hartuko du hitza. 14:00etan bazkaria izanen da Pentzean eta arratsaldean plazan kirol animazioaz gain, dantza ikusgarria izanen da Iruñea, Leitza eta Monteagudoko dantzariarekin, baita dantza jauziak ere Ezpela txarangarekin, Kiki Bordaxorekin eta Laket talderekin. 17:00etatik goiti kontzertuen txanda izanen da. Xokoan Trikidantz, Mc Onak, Damba, Holako eta Euskal karaokearekin gozatzeko aukera izanen da eguna borobiltzeko.

BAZTAN

GIZARTEA → GOIZ ETA ARRATSALDEZ ARTISAUTZA ETA BERTAKO PRODUKTUEN AZOKA PARATUKO DA

Udaberriko Feria apirilaren 25ean egingen dute Elizondon

Ahari lehiaketaren hamaseigarren edizioa izanen da tartean

TTIPI-TTAPA

Aziendak, artisau lanak eta etxeko produktuak etxetik edo baseretik karrikara ateratzeko, apirilean Baztannen egiten den hitzordu nagusia gainean da. Apirilaren 25ean egingen da Udaberriko Feria Elizondon.

10:00etanazienda feria izanen da Merkatu Plazan. Ahari lehiaketaren hamaseigarren edizioa ere egingen da. 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara artisautza eta bertako produktuaren azoka paratuko da Foru Plazan. 11:00etan txistulariak ariko dira karrikaz karrika. 12:00etan Baztan Zopak dastatzeko aukera izanen da Merkatu Plazan eta 12:30ean Baztango dantzari ttikien saioa.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Baztan pelikularen erakusketa eta emanaldiak Iruritan

Baztan pelikulari buruzko erakusketa ikusgai izanen da apirilaren 17tik 20ra Irurirako jauregian, Dorrea elkarteak antolatuta. Erakusketako ateak 18:00etatik 20:00etara zabalduko dira eta ondotik, 20:00etan pelikula bera ikusteko aukera izanen da Jauregiko lorategian. Apirilaren 19an, larunbatean, filma ikusi ez ezik, protagonistek ere parte hartuko dute eta beraiekin solasteko aukera izanen da. Jakina denez, Baztan eta inguruetako hainbat lagunek parte hartu zuten pelikula honetan, tartean argazkian ageri den *Xegone*.

13:30ean ahari lehiaketaren sari banaketa egingen da Merkatu Plazan. 17:00etatik 19:00etara, umeentzat tailerra egingen da.

XVI. AHARI LEHIAKETA
Aitzineko urteetan be-

zala Baztango Ahari Lehiaketa ospatuko da, aurtengo XVI. edizioa izango delarik. Oinarrietan aipatzen den bezala Baztango latxa arrazako buruak parte hartzen ahal dute eta sariak bi ataletan banatu-

ko dira: hiru "mutur goriendako" eta bertze hiru "mutur beltzendako". Bi kasuetan, saria berdina izanen da: Lehengo saria, kaiku bat eta 75 euro; bigarren saria, 50 euro eta hirugarren saria, 30 euro.

EKAINAREN 14AN

Solaslagunen ikasturte bukaerako besta Amaiurren

TTIPI-TTAPA

Ikasturteari agurra emateko egun osoko egitaraua prestatu dute Solaslagunek ekainaren 14rako Amaiurren. Hiru oru eta erdiko hika ikastaroa egingen dute Amaiurko elkarteetan, 10:00etatik 14:00etara (ordu erdiko atsedena egingen dute eguerdian). 14:30ean bazkaria egingen dute elkarteetan eta baztaria bertan prestatuko dute. Bazkalondoan, Amaiurko herrian eta monolitoan bisita gidatua egingen dute eta egunari akabaila emateko talo-jatea Amaiurko erroetan. Jon Jauregi Baztango Solaslaguna izanen dute.

Azken egun honen aitzinetik, Donamariatik Garmendiko buelta egingen dute Mendilagunek maiatzaren 4an eta Euskal Herri osoko Mintza Eguna izanen da maiatzaren 31n Arabako Izarran.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruaak: Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza: Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala: Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria: Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

POTTOKI



ttipi baztela

%5eko
DESKONTUA
oparitzeko
artikulu txikietan

HEZKUNTZA → ARETXABALETAKO HUHEZINEMA LEHIAKETAN

Azpilkuetako eskola protagonista duen film laburra saritu dute

Dokumental onenaren eta ikuslearen saria eskuratu du 'Jo ta jarri' filmak

TTIPI-TTAPA

Ikasturte honen hasieran, Mondragon Unibertsitateko Ikus Entzunezko Komunikazioko Huhezi fakultateko ikasle talde bat (Nora Vicente, Amaïur Perez, Izar Usobiaga, Andrea Venegas eta Oihane Abrisqueta), Azpilkuetako eskolarekin harremanetan paratu ziren, dokumental bat grabatzeko asmoz. Azaroan egin zuten grabaketa eta Huhezinema lehiaketan bi sari eskuratu ditu, dokumental onenarena eta ikusleena.

Proiektu hau, Dokumentalgintza ikasgaierako sortutako dokumental bat da "Jo ta jarri". Hasiera batetik egileek nahiko argi zuten eskola txikienginguruko dokumentala egin nahi zutela. Hori dela eta, in-

ternet bidez eredu hau jarraitzen zuten eskolen bila hasi ziren. Bilaketan murgilduta zeudela, Azpilkuetako eskolako blogera iritsi ziren. Sei ikaslek osatzen zuten taldea eta gainera adin desberdinetakoak ziren. Hori zen beraiek bilatzen zutena, beraz segituan haiekin kontaktuan jarri ziren. Denbora guttian han ziren bere kamera eta mikroekin haiek grabatzeko intentzioarekin.

Bertzalde, egileek bere dokumentalaren eredu obserbazionala izatea nahi zuten. Dena gertatzen den bezala erakustea, hain zuzen. Beraz, bertara zer gertatuko zen jakin gabe etorri ziren, ikuslea erakarriko zuen "momentu magikoen" bila.

Astebete egon ziren Azpilkuetako eskolan, azaroan, zituzten ikasgai guztiak grabatzen.

Huhezinema Aretxabaletan egiten den film laburren lehiaketa da, eta aurten dokumentalen atalean aurkezteko



ARGAZKIA: [HTTP://YOUTU.BE/VFz-wjWc94](http://youtu.be/VFz-wjWc94)

Azpilkuetako ikasle eta irakasleak, bideoa fotogrametan.

aukera izan zuten. Martxoaren 28an sari banaketa izan zen eta bisari lortu zituzten: dokumental onenaren saria eta ikuslearen saria.

FLASH

Haurrendako antzerkia Liburuaren Egunean

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Baztango Udal liburutegian haur ttiki-txikiendako (1-5 urte) *Lara larika* antzezlanaren eskainiko du Zirika Zirikus taldeak 17:00etan.

Baratzegintza ekologikoa ikastaroa

Cederna-Garalurrek, Baztango Udalaren laguntzaz antolatuta baratzegintza ekologika ikastaroa egingen da apirilaren 24an, maiatzaren 8 eta 15ean eta ekainaren 5 eta 26an. Egunaren arabera, 16:00etan hasi eta 19:00etan edo 20:00etan akituko dute. Denera, 18 orduko ikastaroa izanen da (teorikoa eta praktikoa). Informazioa: baztan@cederna.es.

Lekarozko kolegioko ikasle ohien bilkura

Lekarozko Kolegioko ikasle ohiek urteko baztarraren egiten dute apirilaren 27an eta ondotik bazkaria Iruritan Olarin. Bertze ekintzen artean, Aita Claudio Zudaire Huarte ere omenduko dute. 1938-39, 1953-54, 1963-64 eta 1988-89ko promozioak deitu dituzte bereziki.

Bertako produktuen azoka

Baztango artisauentzat antolatuta, bertako produktuen azoka egingen da apirilaren 19an, larunbatean 10:00etatik 14:00etara Elizondoko plazan.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444
M. 629 659 583
ARIZKUN

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Hurriotz auzoa - Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

Zaldia
ttipi baztela
%10eko
DESKONTUA
produktuetan

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

TURISMOA → 'LAS BRUJAS DE ZUGARRAMURDI'

Filmari buruzko bisita gidatua antolatu dute

Sei geldiuine eta grabazio berezi bat eskainiko ditu

Margari eta Koro

Heldu den udarako, Zugarramurdirat etortzen direnak, berrikuntza bat izanen dute esperoa: "Las brujas de Zugarramurdi" filmari buruzko bisita gidatu bat.

Sei geldiuine izanen ditu: Sorginen Museo-ko entzunaretoan hasiko da, gero Barrantxea, hortik Azketako zugarren-xokoa, gero plaza, hortik "lasterketako" belaila, eta azkenean lezean finituko da.

Hortaz gain, bisita gidatuak grabazio berezi bat ere eskainiko du: filmarekin erlazionatutako 13 lagunen ekarpenak, esperientziak, oroitzapenak, iritziak... Afera da nola bizitzen Zugarramurdingisa hortako grabaketa erraldoia. Hamabortz

egun izan ziren, eta herria hankaz goiti egon zen, dena filmaren inguruan mugitzen baitzen.

Grabaketa hau Xalolo Telebistaren laguntzarekin egin da, eta Iñaki Atxa kameraman izan zen. Lehendik ere Xalolo egin izan du lan museoarendako, arras lan polita eskainiz, eta segur gara huntan ere gauza polita egingen dutela.

Titiriteroen Topaketaz

Eguraldia lagun, giro politean gan zen "Titiriteroen Topaketa". Aipatzekoa da ekitaldi hauek sekulako meritua dutela, jendearen borondate onari esker aitzina ateratzen baitira: titiriteroak doan etortzen dira, etxe partikular batzuk lo egiteko toki ematen dute, jatera emateko sukaldari eta pintxe bolondresak aritzen dira, talde bakoitzaz ere bolondres bat arduratzen da. Horretaz gain, antolatzaileek



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Bolondresen lanari esker, giro ederrean joan zen Txotxongiloen Topaketa.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Euskal Herriko Itzulia herrian barna pasatu zen bi aldiz

Herrian sekulan ikusia ez ginuen espektakuloa izan ginuen apirilaren 8an: Euskal Herriko Itzulia pasatu baitzen. Gainera, behin ez aski izaki, eta bi aldiz pasatu zen herri erdi-erdetik, bentetako bidetik sartuz eta Dantxarineko bidetik ateraz.

eskerrak eman nahi dizkiete ondoko hauei: Arleun elkarte, Akela-

rre Elkartea, Herriko Etxea, Museoa, Marian ostatua, Irietxea

landetxea, Azketa jaltetxea eta Urdazubiko Gaiñfara elkarteari.

URDAZUBI → BERROGEITA HAMAR PROFESIONAL BILDU ZIREN APIRILAREN 3AN

Euskal Herria eta Biarnoko turismo arloko topaketa egin zen

TTIPI-TTAPA

Euskal Herria eta Biarnoko turismo arloko profesionalen topaketa egin zen apirilaren 3an Urdazubian. Muga bi aldeetako 50 bat profesional bildu ziren. Izan ere,

Turismo Bulegoen harremanak estutzea eta bezeroei ematen ahal zaien informazioa gero eta hobe eta zehatzagoa izatea ziren topaketaren helburuak.

Bi lurraldeetako mu-

getan turismo haundia dagoela kontutan hartuta elkartasun honek ondorio positiboak ekarriko dituela pentsatzen dute.

Solasaldien ondotik, Errota eta Monastegiko



UTZITAKO ARGAZKIA

Turismo arloko profesionalak Urdazubian.

museoa, klaustroa eta arte erakusketa ikusteko aukera izan zuten eta bazkaldu ondoren lezeak eta Dantxarineako dendak.

Frantzialdeko profesionalak oso pozik geratu ziren eta harriturik Urdazubik bisitariei eskaini ahal dion gutziarekin.

GIZARTEA → BIGARREN ITZULIAN BOZKATUENA

Pierre Marie Nousbaum auzapeza izanen da

Ondoko sei
urteetan

Franck DOLOSOR

Toki biziki guti zen herriko etxean gan den apirilaren lauean lekua jendez mukuru beteaz baitzen auzapez berriaren izendatzea ikusteko. Martxoaren 30eko bigarren itzulian Pierre Marie Nousbaum eskuindarraren zerrenda idekia nagusitu zitzaien Dominique Idiart euskaltzalearen zerrenda idekiari eta ezker abertzalearen taldeari. Nousbaumek 1542 boz %45,27; 22 aulki herriko etxean eta 3 hirigunean erdietsi zituen, Idiartek 1455 boz %42,1; 6 aulki Senperen eta bakarra Hego Lapurdiko mankomunitatean; eta Bederedek 409 boz %12; hautetsi bakarra herrian eta bihirik hirigunean. Lehen itzulian Nousbaum bigarren tokian sailkatu zen baina aldea 125 bozena zen bakarrik. Bigarren itzu-

lian herritar gehiagok bozkatu zuten beraz Nousbaumen alde. Azken zenbaketaren arabera, 87 bozen abantaila atera zuen.

Nousbaumen garai-pena ezustekoa izan da aintzientzat eta prentsak ere luze eta zabal aipatu du herrian dugun aldaketa. Idiarrek onartu du kolpea jasan dutela eta bere aldetik Nousbaum aski umila agertu da, kanpotarra izanez ez baitzuen uszte noizbait hauteskundeak irabaziko zituela.

Auzapez berriaren izendatze egunean, Christine Bessonart auzapez ohiak azpimarratu zuen herriko etxea egoera sanoan uzten duela eta 6.000 biztanle dituen herriak behar dituen azpiegitura guztiak dauzkala azken urteetan egin den lanari esker: Luberriako barandera, languneak, mendigune izendapena, pilotaren etxea, herriko etxe berritua edo Karrikarte belaunaldien ar-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Auzapeza eta herriko kontseiluko ordezkariak, Herriko Etxearen atarian.

teko egoitza, bertzeak bertze. Bessonartek gogoratu zuen ez dela egia etxeak nonahi eraikitzen ahalko direla, Grenele 2 bezalako legeak bete beharko direla eta babes ofizialeko 500 bat etxe eskas direla oraino eta beraz etxebizitza gehiago altxatu beharko dela herrian.

Nousbaumek barretik ezagutzen du politika, Michèle Alliot Marie ministroaren eta Daniel Poulou diputatuaren laguntzailea izan baita 20 urtez. Dena den, auzapez kargua hartzean poza eta urduritasun piska bat sumatzen zitzaion. Kanpotarra izanagatik kultura aniztasuna zer den badaki eta seme alabek sail ebildunean ikasi zutela gogoratu zuen zorbait hitz

euskaraz erranez. Laster Herri Urratsi ongi etorria egin beharko dio eta Seaskarekin harremanetan dela jadanik aipatu du Gure Irratian. Kulturgunea sortzea eta horren buru langile euskaraduna izendatuko duela hitz eman du.

Bere aldetik Dominique Idiart lehen auzapez orde ohia oposizio berriaren burua da orailan eta lanean segituko du interes orokorraren alde, oposizio eraikitzaile eginez kontseiluan eta lan batzordeetan. Azkenik Jef Bederede abertzaleak dio lan eginen duela herriaren euskal nortasuna zaintzeko. Deitoratzen du Idiartek ez duela nehoiz neholako aliantzarik lortu nahi izan. Lehen bilzarreko solasen ondo-

tik, auzapez ordeak, ordezkariak eta auzapeza hautatu zuten, 22 boz alde eta 7 xuri. Lehen auzapez orde: Comat (finantzak/langileak), bigarren Dunogues (bideak), hirugarren Dugaurreil (kultura/ondarea), laugarren Maixan Bereau (merkataritza/turismoa), bostgarren Emmanuel Bereau (laborantza), seigarren Dupuy (gazteria), zazpigarren Arhancet (haurrak/eskolak) eta zortzigarren Larrañaga (familiak/bizi soziala). Ordezkariak: Lizardi (lurralde antolaketa), Fournier (komunikazioa), Larkarra (elkartekak), Estaynou (kirolak), Aroztegi (nerabeak), Dolosor (oihanak). Herriko kontseilua bilduko da apirilaren 29an, 18:00etan.

VENTA PEIO
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Besa (Administratiboa) 25780 BESA
Bentzena 25712 URRAK
Bardin 25780 BESA
Luzala 25910 LUZADE

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KOMBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

SARA

OSPAKIZUNAK → APirilAREN 19TIK 21ERA

Ekitaldi frango aurten ere Bazko asteburuan

Idazleen 31.
Biltzarra eginen
da astelehenean

Joana GERENDIAIN

Urtero bezala Bazko-ko asteburuan, apirilaren 19-tik 21 era, ekitaldi frango antolatuko dira Saran. Apirilaren 17-tik 21 era Olhain ikastolak Herri Urratseko jantzien salmenta bat antolatzen du plazan, 21 ean salmenta polikiroldegian izanen da. «Larrungo koloreak» elkar-teak margo erakusketa bat eginen du Denen etxeko lehen estaian, Lur Berri gelan «Eskuen lana» elkarteko kideek ere heien lanen erakusketa antolatu dute gozption gozamenerako.

Bazko astelehenez, 21 ean beraz, Idazleen Biltzarren 31. edizioa eginen da polikiroldegian, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara idazleek beren liburuak salduko eta izenpetuko dituzte. Goizeko 11etan Euskaltzaindiko liburu-aurkezpena eginen da, eguerdian Biltzarreko sariak banatuko dira Erramun Bachoc, Manex Pagola eta Patrice Rouleau-ri. Egun osoan Michel Hacialaren «Agur» filma emana izanen da. Ostua ere zabalik egonen da egun osoan zehar.

Karrosa zaldiaren eguna

Lehen aldiko Saran, apirilaren 20 ean, Karro-



ARGAZKIA: PIERRE EZCURRA

600 korrikalari baino gehiago Sara Korrika Trailean

Kirol orrialdeetan izanen duzue informazio gehiago, baina 561 korrikalarik lortu zuten Sara Korrika Trail lasterketa bukatzea. Herrikoen artean, argazkian Saint Ignace inguruan ageri den Stephane Huillet izan zen bizkorrena (27.)

sa zaldiaren eguna antolatuko da Saran. Goizean 11:45ean karrosen desfile bat izanen da plazan. Arratsaldeko 3etan, liburutegi pareko soroan, erabilgarritasun erakustaldi bat izanen da. Ekitaldia denbora txarrarengatik anulatua izaten ahal da.

Kirol emaitzak

Martxoaren azken asteburuko kirol emai-

tzak. Eskubaloian 15 urte azpikoek Coarrazeko ekipa irabazi dute 31-15, 18 urte azpikoek galdu dute 27-22 Barzunen kontra. Seniorrek SPUCen kontrako derbia irabazi dute 28-10. Errubilariek Pouilloneko ekiparen kontra ari ziren Saran, erreserbak irabazi du 52-5 eta lehenak galdu du 16-12.

Apirilaren 5-6 ko asteburuan, esku baloian:

11 urtez azpikoek irabazi dute Oloronen kontra 26-15, 13 urte azpikoek irabazi dute 23-20 Burosen kontra, 18 urtez azpikoek ere 20-15 irabazi dute Kanboren kontra; Seniorrek aldiz galdu dute 24-18 Madiranen kontra.

Errubian, erreserbak final laurdenetako joaneko partida galdu dute Hermeko ekiparen kontra 33-3.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

Martutzak

ZURE OSPAKIZUNETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Solnekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

kukuka

ASTE SANTUAN

Ortzegun eta larunbata goizean
IREKIA

Astelehenean **ITXIA**




Zuzpigarutze, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

Rekordatorioak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b. 7 | LESAKA | 948 635 458



EZKONTZAK

Ez dago datu berririk.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

- Xuane Alzuguren Irtzoki**, Berakoa, martxoaren 23an.
- Leire Almandoz Telletxea**, Doneztebekoa, martxoaren 27an.
- Oier Mendiburu Erasun**, Doneztebekoa, martxoaren 31n.
- Enaitz Bazterrika Elizalde**, Doneztebekoa, apirilaren 5ean.
- Aia Amador Arruabarrena**, Etxalarakoa, apirilaren 2an.
- Xuban Bereau Txoperena**, Igantzikoa, apirilaren 6an.
- Julen Elizarri-Olleta Lekuona**, Sarakoa, martxoaren 24ean.
- Xalbat Telletxea Alkorta**, Zugarramurdikoa, martxoaren 30ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

- Miguel Mari Sagastibeltza Zabaleta**, Leitzakoa, apirilaren 2an, 46 urte.
- Martina Goñi Goldarazena**, Berakoa, martxoaren 27an, 98 urte.
- Francisca Lakondegi Zelaieta**, Lekarozkoa, martxoaren 30ean, 86 urte.
- Francisca Ballarena Etxeberria**, Elizondokoa, martxoaren 31n, 82 urte.
- Pepita Oiaregi Lekaroz**, Doneztebekoa, apirilaren 6an.
- Pierre Barrenetxe**, Sarakoa, martxoaren 10ean, 89 urte.

Martina GOÑI GOLDARAZENA

Beran, 2014ko martxoaren 27an

Joandako urek ez omen dute inoiz errota mugitzen guk badakigu, ordea, nola hau ez den beti betetzen zure maitasun, oroitzapenak gugan direnez gelditzen gure bizitzetako errota segiko duzu bultzatzen.

ZURE FAMILIA

Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458

DUATLOIA → APIRILAREN 5EAN

Lehen garaipena lortu du Errekako triatloi taldeak

Iñigo Arregi doneztebarrak irabazi zuen San Adriango Duatloia

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Erreka Triatloi taldeak lehendabiziko garaipena lortu du. Iñigo Arregi doneztebarrak lehendabizikoa izan zen apirilaren 5ean San Adrianen burutu zen duatloiaren hamargarren edizioan. 6 kilometro lasterka, 23 bizikletan eta azkeneko 3ak berriz ere lasterka egin behar zuten kirolariek.

Iñigo Arregi doneztebarrak azkeneko 500



UTZITAKO ARGAZKIA

Iñigo Arregi podiumaren erdian, Igor Flores txirrindulari profesional ohiaren eta Eder Rodriguezen artean.

metroetan txirrindulari profesionala izan zen Igor Flores gaitzitea lortu eta podium-eko ohorezko lekuan kokatu zen (01:15:53). Alber-

to Barberena elizondarra laugarren izan zen (01:16:53), Xabier Barñares 42. (01:25:10) eta Javier Magaña 56. (01:26:00).

Bikote sendoa osatzen ari dira Aimar eta Aretxabaleta.

**PILOTA** → ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

Aimar Olaizola eta Aretxabaleta finalerako arerioaren esperoan

TTIPI-TTAPA

Aitzakiarik gabeko txapelketa egiten ari dira eta eskuz binakakoan lehenbiziko finalistak dira Aimar Olaizola goizuetarra eta Markinako Aretxabaleta. Lehenbiziko fasean, 14 partidetatik 11 irabazi eta sailkapen buruan sartu ziren finalerdietan. Finalerdietan, 8 tantutan utzi zituzten Lasa eta Barriola eta 3 tantutan Xala eta Zubietta eta gisa horretara, Urrutikoetxea eta Beroizen kontrako partidaren faltan, dagoeneko finalerako txartela lortu dute. Irujo eta Barriola edo Xala eta Zubietta bi bikoteetako bat izan dute arerio azken partidari. Finalerdietako azken partida asteburu honetan jokatzekoa dute eta irabazleak lortuko du finalerako txartela. Bertze atzerapenik ez bada, maiatzaren 4an jokatu da finala Bilboko Bizkaia pilotalekuan.

MENDI LASTERKETA → 7,2 KILOMETROKO PROBA

201 emakume Azkaingo Neska Korrikan

Claudia Behobide hondarribiarra nagusitu zen

TTIPI-TTAPA

Claudia Behobide hondarribiarra Azkaineko IX. Neska Korrika lasterketa irabazi zuen apirilaren 5ean. 7,2 kilometro proba da Azkaineko, eta mendi nahiz

asfalto gainean egiten da. Behobidek 29 minutu eta 12 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Iratxe Aranburu (30:20) eta SPUC-eko Carole Mendilaha-txu (31:57) igo ziren berarekin podiora.

Hain zuzen, Senperreko taldeak eta Manttalen osatu zuten eskualdeko ordezkariak zabalena. Irene Matxiren beratarra 10. izan



ARGAZKIA: ANGEL POMBAR

Azkaingo Neska Korrikan parte hartu zuten Manttalen taldeko korrikalariak.

zen, Garbiñe Iguaran beratarra 19., Leire Portu lesakarra 24., Claudine Sein senperrarra 25., Itxaso Irigoien lesakarra 32., Aitziber Iturria beratarra 38., Be-

goña Larralde lesakarra 66., Anne Marie Ado senperrarra 70., Pake Franzesena lesakarra 88., Marie So Sein senperrarra 89., Aurore Sanchez senperrarra

120. eta Mylene Hautbois senperrarra 157.

Denera, 201 emakume lortu zuten helmugara heltzea. Haur eta nerabeen lasterketak ere egin ziren.

MENDI LASTERKETA → BEDERATZIGARREN EDIZIOA BURUTU ZEN MARTXOAREN 30EAN

561 korrikalarik bukatu zuten Sara Korrika Trail lasterketa

Oier Ariznabarreta eta Aitziber Ibarbia izan ziren irabazleak

TTIPI-TTAPA

623 korrikalarik eman zuten izena martxoaren 30ean egindako Sara Korrika Trail mendi lasterketaren bederatzigarren edizioan eta horietatik 561ek lortu zuten helmugaratzea.

Durangoko Oier Ariznabarretak irabazi zuen. Ordubete, 53 minutu eta 39 segundo behar izan zituen 25 kilometroak osatzeko. Hassan Ait Chaou izan zen bigarren (1h58'25"). Nicolas Darmaillaxq-ek osatu zuen podiuma. Emakumezkoetan Aizkardi taldeko Aitziber Ibarbia izan zen bizkorrena (2 ordu eta erdi), Leintzgain taldeko Oihana Aizkorbebeitia (2 ordu eta 33 minutu) eta Sara Dinclaux-en aitzinetik (2 ordu eta 36 minutu).

ESKUALDEKO korrikalari nagusien artean, Manttaleko Joseba Larralde beratarra zortzigarren izan zen (2h07'28"), SPUCeko Aitor Berra 22. (2h18'13"), Sarako Stephane Huillet 27. izan zen (2h20'52") eta Igantziko Biltokiko Mikel Urtxegi 33. (2h24'28"). Emakumezkoetan, SPUCeko Carole Mendilahatxu hamabosgarren izan zen (3h02'46") eta Azkaingo Sophie



DATUA

260

IBILTARIK

egin zuten lasterketa ikusteko antolatutako oinezko martxa

Aniotzbehere 41. (3h36'05").

Aipatzekoa da, lehen aldiz, proba ikusi ahal izateko oinezko ibilaldia ere antolatu zuela Sara Korrikak eta 260 ibiltarik egin zutela 15 kilometrako mendi martxa.



ARGAZKIAK PIERRE EZCURRA

Goitian, emakume eta gizonezkoen podiuma. Erdiko argazkian, korrikalariak lanean. Behean, zortzigarren izan zen Joseba Larralde beratarra.

ESKUALDEKO KORRIKALARIAK

- 8 Joseba Larralde-Bera
- 22 Aitor Berra-Senpere
- 27 Stephane Huillet-Sara
- 33 Mikel Urtxegi-Igantzi
- 44 Beñat Sein-Senpere
- 63 Bernard Seillan-Senpere
- 65 Stephane Aranaz-Senpere
- 83 Iñaki Larrañaga-Bera
- 100 Jorge Arakues-Bera
- 111 Dominique Laporte-Senp.
- 117 Michel Guiltcou-Senpere
- 120 Didier Labeguerie-Azkain
- 135 Gerard Sein-Senpere
- 149 Guillaume Sein-Senpere
- 153 Thierry Haroçarene-Senp.
- 154 Stéphane Zamora-Senp.
- 156 Stéphane Lamothe-Senp.
- 166 Daniel Zabala-Senpere
- 184 Pascal Soudre-Senpere
- 190 Manolo Gouraud-Bera
- 208 Asier Etxeberria-Lesaka
- 215 Vincent Lamothe-Senpere
- 223 Alexis Reberg-Senpere
- 245 J.Laurent Etchart-Senpere
- 250 C.Mendilahatxu-Senpere
- 270 Imanol Larrañaga-Bera
- 282 Jerome Turnaco-Senpere
- 284 Emmanuel Daguerre-Senp.
- 287 Mixel Bourgoïn-Senpere
- 288 Michel Sein-Senpere
- 301 Laurent Bordes-Senpere
- 312 Totte Jaureguiberry-Senp.
- 317 Christian Ozkoidi-Senp.
- 332 Luxito Marin-Azkain
- 343 Christophe Claudio-Senp.
- 420 Jeremy Lalande-Senpere
- 424 Pierre Dubroca-Senpere
- 452 Xabier Agerre-Senpere
- 461 Sophie Aniotzbehere-Azkain
- 470 Christelle Lekuona-Senp.
- 531 Claudine Sein-Senpere
- 532 Marie-Jo Sein-Senpere

apirilak 17 - maiatzak 1

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



LESAKA | 2014.04.26

Gazte Eguna antolatu dute apirileko azken larunbaterako

Egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte Gazte Eguna dela eta. Aurten Lasarteko gazteak izanen dira gonbidatu bereziak, baina denei egin diete joateko deia.

Azokak



ELIZONDO | 2014.04.25

Aziendak, artisauak eta bertze hainbat kontu Udaberriko Ferian

Azienda, artisau eta bertako produktuen azokek emanen die hasiera Udaberriko Feriari. Hortik aitzinera txistulariak, Baztan Zopak, dantzariak eta tailerra izanen dira.

Kultura



SARA | 2014.04.21

Euskal Herriko Idazleen Biltzarraren XXXI. edizioa

10:00etatik aitzinera Euskal Herriko hainbat idazle Sarako kiroldegian izanen dira liburuak saltzen eta sinatzen. Aurkezpen eta sari banaketak ere izanen dira.

Apirilaren 27an sabel eta ekialdeko dantzen ikastaroa Dasya zentroan, 18:00-20:00.

Bertsoak

BERA

San Jose zahar etxeko kultur astearen barne

Apirilaren 25ean Iban Garro, Eneko Fernandez, Ioar Tainta eta Manu Goigana (17:00).

Kantak

BERA

Bera kantari

Apirilaren 26an Illekuetatik hasita (19:00).

Erakusketak

IRURITA

'Baztan' filmari buruz

Apirilaren 17an Jauregian (18:00-20:00).

BERA

'Lagun askeak'

Maiatzaren 4ra arte eskulturak, pinturak... 10:00-12:00 eta 16:00-19:00 Kultur Etxean.

SARA

Bi erakusketa aukeran

Apirilaren 19tik 21era margo eta zizelketa erakusketa Denen Etxean (10:00-18:00). Eskulan erakusketa Lur Berrin (10:00-19:00).

Antzerkiak

ELIZONDO

Haurrendako antzerkia

Apirilaren 23an Lara Larika antzezlanaren Liburtegiaren 17:00etan.

Ikastaroak

IGANTZI

Lorazaintza ikastaroa

Maiatzaren 3an goizez Herriko Etxean.

BERA

Baratzegintza ekologikoaz

Apirilaren 24an eta

maiatzaren 8an Bera-landetan, 18:00-21:00. Izen-ematea apirilaren 16a baino lehen 012an.

SUNBILLA

Udalak antolatuta

Apirilaren 25era arte eman daiteke izena plataforma eta karretila jasotzaileak modu seguruan erabiltzeko ikastaroetan.

Lehiaketak

BERA

Gazte Egunaren kartel lehiaketa Apirilaren 28ra arte

aurkez daitezke lanak kaxerna_gaztetxea@hotmail.com-en.

Filmak

IRURITA

'Baztan' filma ikusgai

Apirilaren 18, 19 eta 20an Jauregiko lorategian, 20:00etan.

BAZTAN

'Gazta zati bat' dokumentala ikusgai

Apirilaren 17an Amaiurren 19:00etan.
Apirilaren 24an Anizen 19:00etan.

Apirilaren 25ean

Arizkun 21:30ean.

Azokak

ELIZONDO

Bertako produktuak

Apirilaren 19an plazan, 10:00-14:00.

Udaberriko feria

Apirilaren 25ean.

LESAKA

Ikastaroak aukeran

Apirilaren 25ean haur-errentzako autoestimutalerra (17:30-19:00) eta meditazioa (20:00) Dasya zentroan.

Kontzertuak

ELIZONDO

Banda Rekreo

Maiatzaren 3an 20:00etan plazan.

LESAKA

Gazte Egunaren baitan kontzertuak ostatu

Apirilaren 26an Ohar-kabe taldea Koxkillan, Kalera Arranon eta Huuh Atxaspin (20:30).

IGANTZI

Udaberriko bestetan

Maiatzaren 3an AZ/DZ, Gose eta Bad Sound System taldeak.

PROPOSAMENA

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna apirilaren 27an

Milaka lagun biltzeko da apirilaren 27an Baigorri, Nafarroaren Eguna ospatuko baita bertze urte batez. Goizean goizetik, karririk animatzeko dantzariak, bertsolariak eta musikariak izanen dira, baita merkatua ere. Eguerdian bazkaria izanen da eta arratsaldean, kirolak, dantzak eta kontzertuak: Trikidantz, Mc Onak, Damba, Holako, Euskal karaokea...



ZUBIETA

Kantautoreak

Apirilaren 26an Amarella, Edu Libra eta Cere Vera 21:30ean Herriko Ostatuan.

Ospakizunak

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna

Apirilaren 27an.

SARA

Zaldi gurdidunen eguna

Apirilaren 20an.

Euskal Herriko XXXI. Idazleen Biltzarra

Apirilaren 21ean.

SUNBILLA

Pintxo Astea bigarrenez
Apirilaren 17tik 20ra.

LESAKA

Gazte Eguna

Apirilaren 26an egun osoko besta.

IGANTZI

Udaberriko bestak

Maiatzaren 1etik 4ra.

DONEZTEBE

Pintxo astea

Maiatzaren 1etik 4ra.

LEITZA

Jubilatuena eguna

Maiatzaren 4an.

Mendi ibilaldiak

BAZTAN

Mendigoizaleen irteerak

Apirilaren 27an Bai-gorria Nafarroaren Eguna, 07:00etan Erratzutik abiatuta.

Maiatzaren 4an Arizkun-Eskiz-Ordoki, 08:00etan abiatuta.

DONAMARIA

Solaslagunen mendi ateraldia

Maiatzaren 4an Donamariako plazatik 10:00etan abiatuta Garmendiko buelta.

LEITZA

Arkupeak elkarreak

Apirilaren 24an 09:00etan udaletxetik abiatuta Santa Kruz ermita-haize errotak-Kornieta-Erasote-Plazaola-Leitza ibilbidea.

IGANTZI

Bi ateraldi Udaberriko besten barne

Maiatzaren 1ean ibilaldi gidatua, 10:00etan abiatuta.

Maiatzaren 2an haur eta gurasoentzako ateraldia, 15:00etan.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Lesakako San Ferminetan

JOHN ANDUEZA

Elkar, 2014

Donostiako Bilintx institutura itzuli da John Andueza. *Larunbatean Bukowskin* nobela arrakastatsuen ondotik; orainoan, DBHko 4. mailako abenturak kontatzen dizkigu. Danel eta Ximon lagunak dira protagonistak, baita Ximonen andregai Amaia, eta gelako tribu guztietako ikasleak ere: apatxeak, komantxeak, txerokiak, txeieneak, moikanoak eta baita payuk despistaturen bat ere. Ikasketa-amaierako bidaia egiteko asmoa dute, eta horretarako dirua lortzeko hainbat ekintza antolatuko dituzte. Baina ezusteko batek planak guztiz aldarazi beharko dizkiete. John Andueza kazetaritzan lizentziatua da eta 1993tik ETBko hamaika saiotan aritua da zuzendari, aurkezle, gidolari, edota aktore gisan. Zinemagintzan ere aritua da eta idazle gisan, 2012an bere lehendabiziko nobela publikatu zuen Elkar argitaletxearekin: *Larunbatean Bukowskyn*. *Lesakako San Ferminetan* bere bigarrena da, nobela arina, bitxia, umoretsua, zinematografikoa.

Musika



Berriz, Ezinean

EZINEAN

Oihuka, 2014

Hardcore erritmo azkarretan murgilduta, baxu eta gitarra jostariez jantzitako ahots eta koru melodiko bezain oldarkorak gidarizat hartuta itzuli da Ezinean. Ensaitzeari nahiz kanta berriak sortzeari sekula utzi ez arren, bizitzako zenbait gorabeherak eraginda Ezinean taldea kontzerturik eman gabe eta diskorik kaleratu gabe egon da ia lau urtez. Zorionez, 2013. urtean oholta gainera itzuli zen Ezinean taldea, lehenengo diskoa sortu zuten partaide berdinekin. Dozena erdi bat kontzertu eman ondotik, martxoan Ezinean taldeak bere hirugarren diskoa kaleratu du Oihuka diskoetxearekin, *Berriz* izenburuarekin; «berriz» laukote bera, «berriz» ilusio bera, «berriz» indar bera, «berriz» Ezinean. Oihan Amezuak batera jotzen du, Iban Amenabarrek kantatzeaz gain baxua jotzen du eta Oier Ezeiza eta Oihan Lizaso taldeko gitarristak dira.

Internet



Bortz aktore ezagunen kontuak blogean bilduak

WWW.TTALAKA.ORG/
BLOGAK/TAULAGAINETIK/

Bortz aktore, blog bat eta hamaika kontu. Taula gainetik izena du Ttalaka kultur elkartearen blog berriak; izenburuak berak arras nabarmen ageri du zertaz ariko den, taula gaineko kontuak eta komeriak izanen dira protagonista. Baina baita taula gibekeko bizipenak ere, edota kamera arteko esperientziak ere. Idatziez gain, argazkiak edo bideoak ere paratuko dituzte blogean; batzuetan, hitzekin ezin delako adierazi momentu batek sortzen duen emozioa; agian, momentu hori irudi bakar batean azal daitekeelako. Eta nola ez, polita da bidea eta gogoetak norbaitekin partekatua ahal izatea. Arkaitz Gartzandiak, Egoitz Sanchezek, Dorleta Urretabizkaiak, Sara Cozarrek eta Aitziber Garmendiak osatutako talde ero-formala, bakoitza bere kontuekin, eta norbera bere burutazioekin. Blogaren bazterrek kuxkuxeatu nahi dituenaren zain egonen direla jakinarazi dute.

Nire aukera



Izaskun GOÑI
Donamariako gaztea

«Denbora dudanean bakarrik egon baino nahiago dut edozer gauza egin»

Lagunekin egotea, multil-lagunarekin, familiarrekin... Edozer gauza, bakarrik egon baino». Denbora libre duenean horixe omen du gustuko Donamariako gazteak. Baina hortaz aparte, bazterrek ezagutzea ere gustatzen zaio, eta bere hitzetan, «eskualdeko edozein txoko polita da, urrutijoa gabe». Baina bere herriaz ere ez da ahantzi eta «Jauregia, mendiak... Donamariak txoko aunitz ditu politak», erran digu. Sorteritik kanpo, eguzkia dagoen edozein toki guttura bisitatuko omen luke, «hotza ez baitut gustuko». Beretako asteburuko planik ederrena «inguruko herriak bisitatzeko, lagunekin zerbait hartzerajoa...» omen da, edo bertzelan erranda, «etxetik kanpo egotea». Irakurri baino nahiago omen du zinemara joan, eta film bat aukeratzekotan, «orain dela egun batzuk ikusi dudana *Ocho apellidos vascos*» aipatu du. Gainerakoan, mendia eta itsasoa biak maite dituela aitortu digu donamariarrak. Eta bere ametsaz galdetuta zera onartu digu: «lana ez faltatzea eta ondokoei deus ere ez faltatzea eta ongi egotea».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONOZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ERATSUN. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

DONEZTEBE. 92m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, 2 balkoi, igogailua eta berogailua. Egoera onean. Mobleztatua. Bizitzera sartzeko prest. ☎678 633562.

ETXALAR. Borda bere lur eremu eta baimenarekin salgai. ☎661 121540.

IRUN. Erdialdean pisua salgai, 60m², guztiz berritua, 2 logela, igogailua, hegoaldera ematen duena, oso polita. 156.000 euro. ☎653 749554.

ORONOZ-MUGAIRI.

Etxe berria eta polita salgai, urbanizazio pribatuan (igerilekua, padeleko zelaia, frontoia eta lorategi komunitarioak). 3. solai-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

rua (azkena). Egongela-sukaldea, logela bat, komuna, trastelekua, garajea, berogailua instalazioa, igogailua. Mobleztatua. Fotocasan argazkiak. 89.000 euro. ☎661 898970.

ARESO. Sastizar baserri-landetxea salgai, 25.000 m²ko lur eremuarekin. ☎649 707584.



SUNBILLA. 100m²ko pisua salgai. Ia berria. Mobleztatua. Trastelekua, igogailua eta garajeko marrarekin. 3 logela, 2 bainugela oso, egongela haundia eta sukaldea. Herri erdian. 135.000 euro. ☎638 085419.

ALKAIAGA. Bi pisuko eta

etxebizitza egiteko moduko lokala salgai, oso rik edo zatika. Prezio egokia. ☎649 161830.

ARRAIOZ. Baserria salgai edo errentan emateko. ☎609 973306.

BERA. Etxebizitza atxikia salgai. 200m². 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m²) eta lorategia (75m²). 3 autorentzako aparkalekua. 350.000€ (prezio negoziagarria). Deitu 19:00eta tik aurrera. ☎636 880115.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

DONEZTEBE. Zazpigerutze auzoan pisua errentan emateko. 1.ºgo soalirua. 100 m², 2 bainugela, 3 logela, sukaldea eta egongela. Igogailua eta berogailua. 410 euro. ☎615 756282.

ELIZONDO. Paularena

karrikan pisua errentan emateko. 2 logela eta egongelarekin. Mobleztatua. ☎679 613201/948 580081.

ARANTZA. Pisua errentan emateko. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. ☎664 724553.

ELIZONDO. Pisua errentan eman edo saltzeko. 3 logela, sukaldea, trastelekua, komuna, jantokia eta 2 balkoi. ☎620 778953 (deitu eguerditan 13:00-14:30 edo gauez).

LESAKA. Pisua errentan emateko. 90 m², guztiz egokitu eta hornitua, 3 logela, eguzkitsua, gasa, berokuntza eta kalitateko leihoekin. Frontoi ondoan. ☎670 754034.

BERA. Bidasoa karrika 43 3b-n, 60m²ko mobleztatutako pisua errentan emateko. 2 logela, jangela, komuna eta sukaldea terrazarekin, tras-

teleku itxi batekin eta garajeko marra batekin. Egokitua. 475 euro. ☎687 926414..

BERA. Itzea karrikan apartamentua errentan emateko. ☎609 973306.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan emateko. ☎608 586239.

ELIZONDO. Apartamentua errentan emateko. 2 logela, 2 komun, garajeko marra eta igogailuarekin. 3. solairuan. Toki lasaian eta dena mobleztatua. Ganbara ere badu. ☎656 416047.

BERA. Altzateko Plazan pisua errentan emateko. Igogailuarekin, 3 logela, egongela, sukalde zabala eta berogailua. Guztiz ekipatua. ☎665 716126/ 685 727560.

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

BERA. Pisua konpartitzeko neska bat behar da. Arduratsua eta erretzailea ez dena. Berako toki lasaian tokatua. Pisua egoera onean. ☎662 585965.

SARRIGUREN. Pertsona langile bat behar da pisua konpartitzeko. Hilabetean 220 euro. ☎628 199447.

LANA

eskariak

ELIZONDO, IRURITA, ARIZKUN... zonaldean emakumea garbiketalarinetan ariko litzateke, per-

BASERRIADATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(martxoaren 28tik apirilaren 4ra bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 51 € (=)

Zerri gizena
1,275 € kilo. (+0,025)

Zerramak:
0,710 € Kg/bizirik. (+0,020)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,37

1.koa 4,11

2.koa 3,96

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,43

1.koa 4,15

2.koa 4,01

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 120,00

idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00

idixkoak 160,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,00/6,60

8-10 kilokoak: 4,70/5,40

tsonak zaintzen, ostalaritza... Guztietan esperientziaduna. ☎669 315646.

Emakumea kotxearekin lan bila: garbiketa lanak, haurrak eta helduak zaintzeko, ostalaritza, komertzioan... ☎692 970038.

Esperientziadun **emakumezkoa** pertsona helduak zaintzen ariko litzaiteke, etxean edo zahar etxean. ☎630 865496.

LANA eskaintzak

BERA. Jatetxe batean asteburueterako esperientzia duen sukaldaria behar da. Euskara eta frantsesa dakizkien zerbitzaria ere behar da, esperientziarekin. ☎948 631658/650 981950.

ZUGARRAMURDI. Herriko ostatuan sukaldaria behar da urte osoan lan egiteko. Esperientziarekin. ☎948 599482.

URDAZUBI. Indianobaita jatetxean zerbitzaria behar da asteburuetan eta besta egunetan lan egiteko. Frantsesa dakiena eta esperientziarekin. ☎948 599021.

BERA. Jatetxe batean sukaldari laguntzailea behar da. ☎617 723475

ZERBITZUAK zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guztetako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisoarik gabe
Jose Manuel Izarduen
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gertutako - ARANTZA

ZERBITZUAK denetarik

ERRATZU. Ekainean ingeleseko ikastaro trinkoa. Lehen maila. Haurrak eta helduak (12 urte-rik goiti). Aurretiko ezagutzarik ez da behar. Informazio gehiagorako deitu edo idatzi. ☎659 948926/dianainiesta@hotmail.com.

ROSA BELZUNEBI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu orduak
☎ 948 272011 (RUINA)
☎ 948 580975
Jaime Urutia 42-20 - ELIZONDO

MOTORRAK saldu

Yamaha Tenere motorra salgai. NA-AZ. ☎669 686626.

Vespa 200 Iris salgai. ITV eta asegura indarrean daude. 750 euro. ☎948 599267.



Fahr markako **malladorra** salgai. Prezio ona, negoziagarria. ☎659 230236.



MOTORRAK tailerrak

GANIX
Tailerra
☎ 948 63 06 69
Bilboko, 6 BERA (NA)

ANIMALIAK oparitzeko

Zakurra oparitzeko. ☎606 981804.

SUNBILLA. 2 hilabeteko 2 zakurkume oparitzeko. Ama Border Collie eta atta euskal artzain zakurra. ☎609 047743.



ANIMALIAK salgai

BERA. Ahari bat salgai. ☎948 630715.

DENETARIK salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

IRUN. Taxi lizentzia salgai, jubilazioa dela-eta. ☎630 123959.

Amezitia Centro BTT. Bizikletak aldatu behar direlako, **25 bizikleta salgai**, 85 eurotan bakoitza. ☎670 410556.

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritua. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



IRUN. Titularraren heriotzagatik taxi lizentzia salgai. Saltzeko presa. ☎629 438753.

Silo bolak salgai. 25 euro. ☎607 080344.

Irudiko **habia-oheta** salgai. 1,05 metroko zabalera eta 3 kajoirekin. Prezio onean, aukera bikaina. ☎626 097128.



Verney Carron markako **riflea** salgai, Impact Diamond modeloa, 30,06 kalibrekoa, zeiss markako puntu gorriko mirarekin, oso egoera onean. ☎679 131153.



Trikitixa berria salgai. 4

Apirileko zk. saritua
6.030

Bi lagunentzako bazkaria

Sarituen hilaren 30a baino lehen deitu behar du Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatera

948 63 52 54

ahotsetakoa, profesionala. Urdina. Si bemol toa. ☎620 786277.

DENETARIK galdu-aurkituak

BERA. Eguzkitako antiojoak aurkitu dira Enderla -tsatik hurbil, trenbidean. ☎948 635458.

BERA. Musika eskola inguruan, labaderorako bidean, diru-zorroa edo kartera bat agertu da apirilaren 4an. ☎608 170013.

ttipi-ttapa-rekin AURREZTU EZKONTZAKO GONBIDAPENETAN

100 Rper 150€
100 bi-erriko 170€
Ingeniaria berria | Soluzioak berria
BEZa berria | Egia: 10 lan egun

Koskontako bidea 7, LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com | www.ttipi.net

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea; 4) www.ttipi.net bitartez



Lesakako **MAREN BERAU** **ARRBILLAGAK** urtea bete du apirilaren 4an. Zorionak eta muxu potolo bat berexiki Beñaten partetik!



ENEZA ZUBILAGAK bi urte beteko ditu apirilaren 23an. Muxu handi bat pottoki!



Saldiasiko **JOSEBA ZESTAU UGALDEK** apirilaren 10ean 3 urte bete ditu. Zorionak moñoño! Hiru muxu handi familia guztiaren partetik!



Eskerrik asko nirekin erretiroa ospatun duzuen guztiak eta opariak oso gustokoak izan ditut. Eguna ez dut inoiz ahaztuko. **JESUS GARAZO**.



Leitzako **OIHAN GOIKOETXEA GONZALEZK** martxoaren 28an urtea bete du. Zorionak familia guztiaren eta berexiki aitaxo eta amatxoren partetik. Muxu potolo bat!



Sunbillako **MARIA LUISA GANBOAK** urteak bete ditu apirilaren 13an. Zorionak amatxi! Polki-polki bertze urte bat joan da, zure umoreaz disfrutatuz eta berexiki zure konpaniarekin, zorte ederra dugu zu gure amatxi izatearekin. Prestatu bazkari eder bat! Muxuuuu.



Sunbillako **URKI BERTIZEK** apirilaren 25ean urtea beteko du. Aunitz urtez Sunbillako eta Labaiengo familien partetik eta muxu asko Joanek, Ekiñe eta Jonen partetik.




Pausuko **SUHAR URSUA QUESADAK** lau urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik **SUHAR** anitz maite zaitugul!



Doneztebeko **ANDER RETEGI AZPIROZK** 4 urte beteko ditu apirilaren 21ean. Zorionak! Gizontxo polit bat egin zara. Ongi pasa pilotari eta muxu goxo-goxo bat zure aita, ama eta Mattinen partetik.



Arantzako **BEÑAT AZPIROZ ERRANDONEAK** 6 urte beteko ditu apirilaren 16an. Zorionak, ongi pasa eta egun horretan ez dadila falta zure irribar polit hori! Muxu goxo-goxo bat aita, ama eta Iratiren partetik.



Begira! Hortza erori zait! Je je, urte bat gehiago eta hortz bat guttiago... Berako **ANDER PAGOLA LOPEZK** urteak beteko ditu apirilaren 16an. Zorionak guapo familia guztiaren partetik eta muxu handi handi bat, berexiki Jon, Asier eta Naroaren partetik. Ospatuko dugu!



Zorionak zure 8. urtebetetzean! Arantzako **XUBAN TABERNA MUTUBERRIAK** urteak bete ditu apirilaren 10ean. Aunitz urtez denen partetik. Muxu handi bat.



OLATZ IRIARTE ITURZAETAK urteak bete ditu apirilaren 13an. Aunitz urtez eta muxu handi bat etxekoan partetik, berexiki Moxo, Kornik eta Socken partetik.



Berako **ANE** eta **SARAK** bi urte beteko dituzte apirilaren 18an. Zorionak maitxiak. Mosu handi bana familia guztiaren partetik.



Ttipi txartela harpidetza berriz merkategoa da

Ttipi txartela eginez gero

2 liburu opari

eta TTIPI-TTAPA Aldizkaria DOAN
39 dendetan DESKONTUAK
Hamabostero ZOKKETA IZUGARRIAK

Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoizko ontziak, papera,
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,
latak, brikak.



Beirazko botilak,
flaskoak, poteak.

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizi luzea dute. Baliteke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota ureztontzi batean... Zeren, manera batera edo bertzer, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



ttipi txartela

Miren IBAÑAZORRE MUALDE
7267211-5
948635458
LESABA

ttipi txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIDA ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea 7 LESAKA

T. 948 635 458 | F. 948 635 457

info@ttipi.net

www.ttipi.net

ZOZKETAK

611 ALEKO IRABAZLEAK

1- KAMISETA BAT | Onin Art

Jesus M^a Gortari | **ETXALAR**

2- 3 LIBURU | Elkar

Basajaun eta Martin | Juan Alzuguren | **BERA**

Elmer | M^a Carmen Uriza | **ELBETE**

Mozoloaren bakardadea | M^arcelina Ormart | **ELIZONDO**

3- KARTA JOKOEA | Katxi porreta

Maki Urtasun | **ORONOZ-MUGAIRI**

4- MAINONTZI MAHAI JOLASA | Lanku

M^a Asuncion Antxordoki | **LESAKA**

5- 3 LIBURU | Erein

Nerbioko piratak | Fabiola Maia | **ELIZONDO**

Sugoitxoren ametsa | Maria Vila | **BERA**

Maite-Maite... | Francisca Inda | **DONEZTEBE**

6- 2 SARRERA | Aquarium

Juanita Arrijuria | **ARRAIOZ**

1

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



2

LOTEA
Martiko
www.martiko.com



3

3 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com



4

TXANTXARIAK DVDa
Urtxintxa eskola
www.aibia.net



5

MENDE BATEN
ALDARRIAK DVDa
Lanku | www.erein.com



6

2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com



DESKONTUAK



SANSIÑENA TAILERRA

ELIZONDO | %5 olio aldaketetan

Ostargi optika

BERA
%5eko deskontua
produktu guztietan

liburu nafarpres

ELIZONDO
%10 liburu eta ikas materialetan,
testu liburuak eta bideoak izan ezik

ELBETEko
POSADA

ELBETE
%10, kartan, 30€tik gorako gastuan

bixkak

KIROL ETA MODAKO
arropa denda

LESAKA | %10eko deskontua

Lamque

ELIZONDO
%10eko deskontua